| 2016KO AZAROAREN 30EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.<br>==========================<br>**BERTARATUAK**<br>**LEHENDAKARIA** | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 30 DE NOVIEMBRE DE 2016.<br>==========================<br>**ASISTENTES**<br>**PRESIDENTE** |
|---|---|

Imanol Landa Jauregi jn.

| ALKATEORDEAK | TENIENTES DE ALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Iñaki Amorrortu Martínez (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)

Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**213.- 2016KO URRIAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**213.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 26 DE OCTUBRE DE 2016.**

2016ko urriaren 26an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 26 de octubre de 2016.

**ALKATETZA**

**ALCALDÍA**

**214.- BOZERAMAILEEN**

**214.- DACION DE CUENTA DEL**

**BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA : AZAROAREN 25EKO UDAL ERAKUNDEAREN ADIERAZPENA.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

Idazkariak adierazpena irakurri du.

Paula Amievak bere protesta adierazi du, Bozeramaileen Batzordean dagoeneko egin zutena, ez baitzaio iruditzen praktikoa denik ekarpenak egiteko epea ematea baina gero kontuan ez hartzea. Adierazpenarekin bat datoz, baina hobetu daitezkeen kontu batzuk daudela uste du. Eudelek adierazpenaren oinarri bat bidal dezakeela esan du, eta gero udalerri bakoitzean zehaztu daitekeela. Udalean dauden sei talde politikoetatik lau baino ez daudela ordezkatuta Eudelen gogorarazi du. Kolektiboetako proposamenak ere ez direla aintzat hartu kritikatu du, Berdintasun Kontseiluan jorratuko baita bihar. Amaitzeko, Getxo alor horretan aitzindaria dela esan du, eta taldeek aurkeztutako ekarpenak jaso daitezkeela uste du.

Alkateak erantzun dio egindako hizketaldiarekin harrituta geratu dela, Bozeramaileen Batzordean aztertutakoa eta erabakitakoa ez baita inolaz ere islatzen. Berak esandakoa ez da egia, hau da, ekarpenak ez direla aintzat hartzen, eztabaidatu egiten baitira eta ez dira onartu, baina hori gauza bat da, eta kontuan ez hartzea beste bat. Adierazpenak erabaki komun bat jasotzen duela argi dago, eta hala hartu zuten adierazpen hori aho batez onartutako talde guztiek; beraz, esandako hitz horiek ezin dira ulertu. Demokraziak gehiengoak erabakitakoa

**ACUERDO DE JUNTA DE PORTAVOCES SOBRE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 25N: "DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.**

El Secretario da lectura a la declaración.

Paula Amieva manifiesta su protesta, que ya la hicieron en la Junta de Portavoces, porque no cree que sea una forma práctica que se de plazo para hacer aportaciones y luego no sean tenidas en cuenta. Estan de acuerdo con la declaración aunque cree que hay cuestiones que podrían ser mejorables. Manifiesta que Eudel manda una base de declaración que luego puede ser concretada en cada municpio. Recuerda que en Eudel sólo están represenados cuatro de los seis grupos políticos que existen en el ayuntamiento. Critica que tampoco se han tenido en cuenta las propuestas de colectivos, porque se va a tratar mañana en el Consejo de Igualdad. Finaliza indicando que Getxo es pionero en este ámbito y cree que se podrían incorporar aportaciones que han presentado los grupos.

El Alcalde le replica manifestando su sorpresa con la intervención realizada ya que en nada refleja lo tratado ni acordado en la Junta de Portavoces. No es cierto lo que manifiesta de que no son tenidas en cuenta las aportaciones ya que se debaten y no han sido asumidas, lo que no es lo mismo que no tener en cuenta para un debate. Queda claro que la declaración recoge un común acuerdo y así se asumió por todos los grupos que aprobaron por unanimidad dicha declaración, por lo que no se entiende la intervención realizada. La democracia obliga a

onartzera behartzen du, eta kasu honetan, gainera, aho batez erabaki zen. Bere adierazpenak akordio batera heltzeko ahalegina egin zuten talde guztiekin ez direla bidezkoak uste du. Amaitzeko, GUK taldeari ahalegin demokratiko bat eskatu dio gehiengoak erabakitakoa onar dezan.

aceptar lo acordado por la mayoría, que además en este caso fue por unanimidad. Cree que sus manifestaciones son injustas con todos los grupos que hicieron un esfuerzo para llegar a un acuerdo. Finaliza pidiendo a GUK un esfuerzo democrático de aceptar lo acordado por la mayoría.

Paula Amievak erantzun du adierazitakoa Bozeramaileen Batzordean esandako gauza bera dela. Onartutako guztientzako gutxienekoa eskasa iruditzen zaie, eta proposamenak ez ziren bozkatu, Eudeleko sustatutako proposamena bakarrik bozkatu baitzen; beraz, gainerakoen ekarpenak ez direla kontuan hartzen uste dute. Adierazpenarekin bat datoz, baina hura hobetzea proposatzen zuten. Amaitzeko, azpimarratu du bere taldea Eudelen ez dagoela ordezkatuta beste talde batzuen moduan.

Paula Amieva replica que lo manifestado es lo mismo que dijo en la Junta de Portavoces. El mínimo común aceptado les parece poco y las propuestas no se votaron ya que únicamente se votó la propuesta promovida por Eudel, por lo que estiman que no se tiene en cuenta las aportaciones de los demás. Estan de acuerdo con la declaración pero planteaban mejorarla. Finaliza insistiendo en que su grupo no está representado en Eudel como otros grupos municipales.

Alkateak erantzun du Bozeramaileen Batzordea ez dela bozkatzen, talde bakoitzak bere iritzia ematen duela baizik, eta haiekin alkateak Bozeramaileen Batzordeko irizpidea jasotzen duela, eta bertan ikusi zela GUK taldeak eta beste talde batek egindako ekarpenak onartzeko gehiengorik ez zegoela. Adierazpena Berdintasun Kontseiluaren aurreko bilera batean aztertu zela aipatu du; izan ere, hurrengo bileran (han bere ekarpena aurkeztu ahalko du), ez da adierazpenaz hitz egingo aplikazioari dagozkion alderdiei buruz baizik; beraz, GUK taldeak horri buruz adierazitakoa ez da egia. Kontuan hartzen du Bozeramaileen Batzordeko hurrengo bileretan erabakiak eta jarrerak argiago zehaz daitezen.

El Alcalde contesta que en la Junta de Portavoces no se vota sino que cada grupo emite su opinión y con ellas el Alcalde recoge el criterio de la Junta de Portavoces y en la misma se vio que no había mayoría para aceptar las aportaciones de GUK ni las presentadas por otro grupo. Indica que en el Consejo de Igualdad se había tratado la declaración en una reunión anterior, porque en la próxima reunión, donde podrá presentar su aportación, no se va a tratar de la declaración sino de aspectos de aplicación, por lo que lo manifestado a este respecto por GUK no es cierto. Toma nota para que en próximas reuniones de Junta de Portavoces de manera más clara se definan los acuerdos y posiciones.

Alkatetzak proposamena eginda, jakitun egon, Bozeramaileen Batzarrak erabakita onetsitako adierazpen instituzionalaz

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces,

Nazio Batuen Batzar Nagusiak arazoaren 25a izendatu zuen emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna, eta, egun hori kontuan hartuta, bat egiten dugu emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko 2011ko Europako Hitzarmeneko oinarriekin, 'Istanbuleko Hitzarmena' delakoarekin; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko ituna ere.

Con motivo del 25 de Noviembre, fecha declarada por la Asamblea General de Naciones Unidas como Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, manifestamos nuestro acuerdo con los fundamentos del Convenio europeo para prevenir y combatir la violencia contra las mujeres y la violencia doméstica de 2011, denominado también 'Convenio de Estambul', el primer instrumento jurídico de carácter vinculante en el ámbito europeo en materia de violencia contra las mujeres y el tratado internacional de mayor alcance para hacer frente a esta grave violación de los derechos humanos.

Bertan, estatuen ardurapeko eremu guztiak jorratzen dira: indarkeria prebenitzea, gizartea sentsibilizatzea (batez ere gizonak eta haurrak), erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, erasotzaileen aurkako ekintza judizialak hastea eta biktimekiko babesa, laguntza eta kalte-ordaina bermatzea, erabili daitezkeen bitartekoen bidez.

Su contenido abarca todas las esferas de responsabilidad de los Estados: prevenir la violencia, sensibilizar a la sociedad (en especial a hombres y niños), impulsar la coordinación entre instituciones, entablar acciones judiciales contra los agresores, así como asegurar protección, apoyo e indemnización a las víctimas a través de cauces accesibles.

Istanbuleko Hitzarmena 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako Estatuak, eta, hartara, arau guztiz loteslea bilakatu zen, erakunde zentral eta autonomikoetan zein tokiko erakundeetan. Hitzarmena funtsezko tresna dela uste dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatu ahal izateko esparru gisa baliagarria da.

El Convenio de Estambul fue ratificado por el Estado español en agosto de 2014 y con ello se convirtió en una norma plenamente vinculante para las instituciones centrales, autonómicas y locales. Consideramos que este convenio es una herramienta fundamental que sirve de marco para poder erradicar la violencia contra las mujeres.

Horiek horrela, Istanbuleko Hitzarmena ezartzen dela bermatzeko,

Por todo ello, para garantizar la aplicación del Convenio de Estambul,

GETXOko Udalak konpromisoa hartzen du Hitzarmenean xedatutako neurrien kalitatezko estandarrak eta betearazpen-maila egiaztatzeko, baita gai horri loturiko nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko beste arauetakoak ere.

Hona hemen neurri zehatz batzuk:

1. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen esparrura eramatea.

2. Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak identifikatzea eta aurre egiteko dinamikak bultzatzea, normalizazioan ez erortzeko makro zein mikro-erasoak salatuz.

3. Harreman intimoetako emakumeen aurkako indarkeria, adierazpen ugaritako indarkeria sexuala, emakumezkoen mutilazio genitala eta jazarpen sexista sartzea emakume eta neskatilen aurkako indarkeriaren kontzeptuaren barruan.

4. Hitzarmena ezartzeko esparruan sartutako indarkeriaren modu guztiei buruzko gaien inguruko datu estatistiko datu xehe eta bereizleak jasotzea, tarte erregularren arabera.

5. Generoaren ikuspegia eta diskriminazioaren debekua ezartzea, indarkeriaren esparruko printzipio nagusi gisa.

6. Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei rol nagusia esleitzea programen ebaluazioan eta jarraipenean, eskubideen titular gisa.

7. Emakumeen intimitate-eskubidea ezartzea arretako bide osoan.

8. Indarkeriaren aurkako haurren eskubideak berariaz aipatzea, batez ere, neskatilen eskubideak.

el Ayuntamiento de GETXO se compromete a dar pasos hacia la verificación de los estándares de calidad y del grado de cumplimiento de las medidas recogidas en el Convenio así como en otras normas internacionales, estatales y autonómicas en esta materia.

He aquí algunas medidas concretas:

1. Referir la violencia contra las mujeres al marco de los derechos humanos.

2. Identificar los distintos tipos de violencia contra las mujeres e impulsar dinámicas para hacerles frente, denunciando tanto macro como microagresiones a fin de no caer en su normalización.

3. Incluir dentro del concepto de violencia contra las mujeres y las niñas la violencia contra las mujeres en las relaciones íntimas, la violencia sexual en sus diversas manifestaciones, la mutilación genital femenina y el acoso sexista.

4. Recoger los datos estadísticos detallados pertinentes, a intervalos regulares, sobre los asuntos relativos a todas las formas de violencia incluidas en el ámbito de aplicación del Convenio.

5. Establecer el enfoque de género y la prohibición de discriminación como principios rectores en materia de violencia.

6. Atribuir a las mujeres que enfrentan violencia un rol central en la evaluación y el seguimiento de los programas, como titulares de derechos.

7. Establecer el derecho de las mujeres a la intimidad en todo el itinerario de atención.

8. Hacer referencia expresa a los derechos de la infancia frente a la violencia y, en concreto, a los derechos

de las niñas.

9. Arretako langileen prestakuntza derrigorrez aitortzea, eta ez sentsibilizaziorako ekintza soil gisa.

9. Reconocer la formación de las y los profesionales de la atención como una obligación y no sólo como una acción de sensibilización.

10. Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta borrokatzen laguntzea sustatzea. Berdintasun politikak sustatuz eta eraso matxisten kontrako protokoloak indartuz edo martxan jarriz eta gizartearen erantzun soziala sustatuz.

10. Promover que la sociedad contribuya a la prevención y al combate de la violencia contra las mujeres. Promoviendo políticas de igualdad y reforzando o poniendo en marcha protocolos contra agresiones machistas y promoviendo la respuesta social

11. Erakundeen arteko koordinazioa bultzatu tokiko protokoloak martxan jarriz, arreta zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen birbiktimizazioa ekiditeko.

11. Impulsar la coordinación interinstitucional poniendo en marcha protocolos locales, a fin de mejorar los servicios de atención e impedir la doble victimización de aquellas mujeres que enfrentan violencia.

12. Mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin elkarlana bultzatu.

12. Impulsar la colaboración con el movimiento feminista y con las asociaciones de mujeres.

13. Gai honetan beharrezkoak diren neurrien finantzaketa bermatzeko mekanismo zehatzak ezartzea.

13. Establecer mecanismos concretos para garantizar la financiación de las medidas necesarias en esta materia.

Bukatzeko GETXOko Udalak bat egiten du azaroaren 25erako deituak izan diren mobilizazioekin eta jendarte osoari deia luzatzen dio parte har dezan.

Finalmente, el Ayuntamiento de GETXO se suma a las movilizaciones convocadas para el 25 de noviembre e invita a toda la sociedad a que participe.

**<u>215.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA : UDAL ERAKUNDEAREN ADIERAZPENA.- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA.</u>**

**<u>215.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE JUNTA DE PORTAVOCES SOBRE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA.</u>**

Alkatetzak proposamena eginda, jakitun egon, Bozeramaileen Batzarrak erabakita onetsitako adierazpen instituzionalaz:

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces,

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartean

El tres de diciembre es un día feliz para toda la ciudadanía vasca. Hemos llevado al euskera a un claro

gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

crecimiento, desde el declive social que venía conociendo hasta hace cuarenta años. De ser una lengua sobre todo de las generaciones mayores, ha pasado a ser una lengua intergeneracional y, especialmente, de la juventud. De verse constreñido a determinados ámbitos, a adquirir carta de naturaleza en ámbitos sociales en los que nunca había estado presente. De ser la lengua más antigua de Europa, a ser una lengua moderna y adaptada a la sociedad actual.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.

El euskera está experimentando un acusado crecimiento gracias a la voluntad y al esfuerzo del conjunto de la sociedad. Gracias al hecho de que toda la sociedad ha asumido el euskera como proyecto colectivo. Gracias al compromiso público y privado. Gracias al acuerdo social.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukera-berdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Hemos hecho de la convivencia lingüística un componente de la convivencia social, un elemento esencial de la cohesión social. Hemos situado la igualdad lingüística y la opción lingüística del individuo en la base de la igualdad de oportunidades entre todos los ciudadanos y ciudadanas.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

El Día Internacional del Euskera es, asimismo, un día para para tomar impulso. En efecto, hoy nos hallamos todavía lejos de la igualdad social entre las dos lenguas oficiales. El euskera y el castellano gozan, en lo relativo al uso, de idéntico reconocimiento legal, pero viven diferentes situaciones sociales.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har,

Por ello, queremos seguir avanzando. En la Comunidad Autónoma Vasca contamos con dos lenguas oficiales. Pero sigue constituyendo un objetivo, en el conjunto de la sociedad, alcanzar

hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza-aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

la igualdad social entre las lenguas. Porque estamos orgullosos de la diversidad lingüística, así como de la aportación que a través del euskera hacemos a la diversidad lingüística en el mundo. Porque la diversidad lingüística enriquece nuestra sociedad, porque el euskera enriquece la diversidad lingüística y, en consecuencia, nos enriquece a cada uno de nosotros y nosotras. Queremos, como dijo Etxepare, que el euskera salga a la plaza, queremos que el euskera viva fuerte y sano en todos sus territorios.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoa eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Que el euskera sea una lengua usada y viva: he ahí nuestro objetivo. Un objetivo que requiere la voluntad y esfuerzo de todos y todas; un objetivo ilusionante; un objetivo que nos interpela a todos y todas: individuos y colectivos, poderes públicos, partidos políticos, sindicatos, asociaciones de empresarios y empresarias, asociaciones deportivas, de ocio o culturales, organizaciones de los diversos ámbitos de la sociedad, etcétera. Es un objetivo que nos agrada, un compromiso que asumimos con gusto.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren araberakoa. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: "Zer egin dezaket nik euskararen alde?".

Por ello, los poderes públicos y los más diversos agentes sociales nos hemos propuesto celebrar unidos el Día del Euskera del presente año. Hemos querido asumir el compromiso de fortalecer el euskera y la convivencia lingüística, un compromiso acorde con la dimensión y posibilidades de cada cual. Para ello, nos hemos hecho una pregunta: "¿Qué puedo hacer yo por el euskera?".

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu

Los y las firmantes de la presente declaración queremos dar una respuesta propia a esa pregunta, una

edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

respuesta que, en una u otra medida, fortalezca el euskera en nuestros ámbitos respectivos.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Igualmente, queremos invitar a toda la ciudadanía y a la totalidad de los agentes sociales a hacerse esa misma pregunta y a que cada cual medite su respuesta, porque las aportaciones de todos y todas son útiles y beneficiosas para la revitalización del euskera y para reforzar nuestra convivencia.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, "Zer egin dezaket nik euskararen alde?" galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz.

Celebremos con alegría y orgullo, por tanto, el Día Internacional del Euskera. Y vivamos en adelante el euskera haciendo de él una lengua viva, entre nosotros y nosotras y en nuestra cotidianidad, respondiendo a la pregunta "¿Qué puedo hacer yo por el euskera?" y difundiendo esa misma pregunta a lo largo y ancho de nuestra sociedad.

Nerea Guijarrubiak hartu du hitza adierazteko Bozeramaileen Batzordean adierazpen hori eta aurreko puntuan jasotakoa babestu zutela, testuak zuzenak iruditzen baitzaizkie, nahiz eta hobetu daitezkeen. Testuak onartzeaz gain, adierazpenaren edukiak betetzeko beharrezkoak diren mekanismoak abian hartzea oinarrizkoa dela aipatu du.

Nerea Guijarrubia inteviene para indicar que en la Junta de Portavoces apoyaron esta declaración y la recogida en el punto anterior porque les parecen correctos los textos sin perjuicio de que puedan ser mejorados. Manifiesta que además de aprobar los textos es fundamental poner en marcha los mecanismos necesarios para aplicar los contenidos de la declaración.

**<u>OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA</u>**

**<u>HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA</u>**

**<u>216.- UDAL-DIRUZAINTZAREN HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARREN ARTIKULUAN XEDATUTAKOA BETE BEHARREZ</u>**

**<u>216.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME TRIMESTRAL DE TESORERIA EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO CUARTO DE LA LEY</u>**

**(2016KO 3. HIRUHILEKOA).**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

IT 023-2016 Diruzaintzako Txostenaren edukiaren jakitun egon; txosten hori betebeharrak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzkoa da.

**217.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA, TRANSFERENTZIEN BIDEZ AURREKONTUAK ALDATZEARI BURUZKOAK.**

Proposamena irakurri ostean, Enrique Pradak hartu du hitza, eta 615/2016 Dekretuaren edukiari buruzko informazioa jasotzen saiatu direla esan du, TAOko kredituan 70.000 euroko murrizketa dakarrena, eta hori aurrez egindako beste bati gehitzen zaio eta ez dute erantzunik jaso; azken helburua zein den ere ez dakite zehatz-mehatz eta, beraz, informazioa emateko eskatu du.

Inazio Uriartek gai horri buruz dio dokumentazioa eskuragarri dutela duela hamar egun baino gehiagotik, Ogasun Batzordea deitu zenetik ezagutzen baitute jadanik. Gogora ekarri du talde guztien artean erabaki zela era horretako galderak informazio batzordean egin behar zirela (teknikariak izaten dira bertan), eta mota guztietako informazioa eman daitekeela. Lotsagarria iruditzen zaio gaia osoko bilkuran proposatzea batzordean ez dutenean ezer galdetu, eta egoera hori utzikeriatzat jotzen du. Helburu zehatza une honetan ezin duela azaldu aipatu du; beraz,

**15/2010 (3º TRIMESTRE DE 2016).**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del contenido del Informe de Tesorería IT 023-2016 sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de obligaciones.

**217.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Enrique Prada manifestando que han intentado informarse del contenido del Decreto 4615/2016, que supone una reducción de crédito de la OTA de 70.000 euros que se suman a una anteriormente realizada y no han tenido respuesta, ni tampoco conocen exactamente el destino final, por lo que pide que se les facilite la información.

Inazio Uriarte respecto a este tema indica que la documentación la tienen a su disposición desde hace más de diez días ya que lo conocen desde que se convocó la Comisión de Hacienda. Recuerda que se acordó entre todos los grupos políticos que ese tipo de preguntas se hacían en la comisión informativa, a la que acuden los técnicos, y se puede facilitar todo tipo de información. Le parece una vergüenza que planteen el tema en el Pleno cuando no han preguntado nada en la comisión, lo que califica como desidia. Indica que no puede en este momento explicar el destino concreto

hurrengo batzordean galde dezala esan dio. Jatorrizko partidari dagokionez, haren kredituak murrizten direla esan du aurrekontuaren kontsignazioa geratzen zela ikusi zelako.

por lo que le remite a la siguiente comisión. Sobre la partida de procedencia manifiesta que se reducen los créditos de la misma porque se vió que sobraba consignación presupuestaria.

Enrique Pradak erantzun du bere hitzetan jarrera lotsagarria, edukazio txarrekoa, oldartsua nabari dela. Zinegotzi arduradunak edukiaren berri ez izatea larria iruditzen zaio eta, gainera, informazio hori espedientean jasota egon behar zen.

Enrique Prada replica manifestando que la intervención denota una actitud maleducada, vergonzosa y osada. Le parece grave que el concejal responsable no sepa el contenido y que además esa información debería obrar en el expediente.

Inazio Uriartek azpimarratu du talde guztiek erabaki zutela argibide horietarako foroa informazio batzordea zela; bertan, talde guztiei galdetu zitzaien informazio gehiago behar zuten, baina ez zuten erantzunik jaso.

Inazio Uriarte insiste en que se acordó por todos los grupos que el foro para dar estas aclaraciones era la comisión informativa y en la misma preguntó a todos los grupos si necesitaban más información y no obtuvo respuesta. .

Enrique Pradak dio hitz horiek zentzuzkoagoak iruditzen zaizkiola, eta aurreko agerraldiaren tonua kritikatu du berriro.

Enrique Prada manifiesta que esta intervención le parece más razonable e insiste en criticar el tono de la intervención anterior.

Eduardo Andradek dioenez, transferentzia horiek ohikoak dira eta logikoa dirudi gaia osoko bilkuran aztertuko bada transferentziaren berri emateko, haren edukiaren berri jakin nahi izatea, baina badakienez gobernuko taldearentzat era horretako transferentziak egitea oso ohikoak direla, ez zaio harrigarria egiten haren berri ez izatea.

Eduardo Andrade indica que estas transferencias son habituales y parece lógico que si viene el tema al Pleno a darse cuenta de la transferencia es razonable pensar que se conozca el contenido de la misma aunque entiende que como este tipo de transferencias son muy habituales por parte del equipo de gobierno no le extraña que no se sepa.

Joseba Arregik jakinarazi duenez, transferentzia horiek sortzen dira ekitaldia amaitu baino lehen agortu daitezkeen partidetan kredituak sortzeko eta, kasu honetan, esku hartze txiki batzuk jasotzen dituzten partidak dira, oraindik zehaztu gabe izan daitezkeenak ere.

Joseba Arregi informa que estas transferencias se producen para generar créditos en partidas que se prevén que puedan agotarse antes de final del ejercicio y en este caso son partidas que recogen diferentes pequeñas intervenciones que todavía pueden estar incluso sin definir.

Enrique Pradak azken hitz horiek eskertu ditu, eta Ogasuneko zinegotziaren lehenengo hizketaldiko tonua ez duela ulertzen esan du berriz.

Enrique Prada agradece esta última intervención e insiste en que no entiende el tono de la primera intervención del concejal de Hacienda.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

4224/2016 zenbakidun Dekretua 20.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/13 kreditu-transferentzia. 2. kapituluko jarduketak urte amaierara arte (bide publikoak).

Decreto nº 4224/2016 por un importe de 20.000,00 euros. Transferencia de credito 2016/13. Actuaciones del capítulo 2 hasta final de año (vías públicas).

4504/2016 zenbakidun Dekretua 2.063,68 euroko zenbatekoarekin. 2016/14 kreditu-transferentzia. Dinamizazioaren laguntzen 3. lerroko kreditua 4. lerrora banatzea.

Decreto nº 4504/2016 por un importe de 2.063,68 euros. Transferencia de credito 2016/14. Redistribución de crédito de la línea 3 a línea 4 de ayudas a la dinamización.

4577/2016 zenbakidun Dekretua 35.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/15 kreditu-transferentzia. Euskara Sustatzeko Planeko ekintzak abian jartzea.

Decreto nº 4577/2016 por un importe de 35.000,00 euros. Transferencia de credito 2016/15. Puesta en marcha de acciones del Plan para Promoción del Euskera.

4615/2016 zenbakidun Dekretua 70.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/16 kreditu-transferentzia. 2. kapituluko jarduketak urte amaierara arte (udal eraikinak).

Decreto nº 4615/2016 por un importe de 70.000,00 euros. Transferencia de credito 2016/16. Actuaciones del capítulo 2 hasta final de año (Edificios municipales).

**218.- 4671/2016 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

**218.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO 4671/2016 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

Quedaron enterados del siguiente decretos de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

4671/2016 zenbakidun Dekretua 7.292,47 euroko zenbatekoarekin. 2016/09 kreditua gaitzea. Getxo Kirolaken artxiboa digitalizatzea (Labide 2016).

Decreto nº 4671/2016 por un importe de 7.292,47 euros. Habilitación de crédito 2016/09. Digitalización del archivo de Getxo Kirolak (Lanbide 2016).

**219.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA: DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA CECOBIRI EMATEA GETXON PILOTEEN EZARRERA BIZKAIA DIGITAL MARKET PROIEKTUAREN ARABERA BURUTZEAGATIK.**

**219.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA CONCESIÓN DE UNA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A FAVOR DE CECOBI PARA REALIZAR EL PILOTAJE EN GETXO DEL PROYECTO BIZKAIA DIGITAL MARKET.**

Proposamena irakurri ostean, Inazio Uriartek hartu du hitza eta adierazi du Ogasun Batzordean proposamenaren edukia azaldu zela; haren alderdi aipagarrienak nabarmendu ditu, eta esan du Getxoko merkataritza sustatzea duela xede, beraz, CECOBIrekin (Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa) egindako jarduera bat 32.890 eurorekin diruz lagunduko da tokiko merkatu digital baten sorreran lan egiteko, eta proiektu pilotu baten bidez, saltoki txikiak eta ertainak babesteko.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte que manifiesta que en la Comisión de Hacienda se explicó el contenido de la propuesta pasando a destacar los aspectos más importantes de la misma e indicando que lo que busca es potenciar el comercio de Getxo, por lo que se va a subvencionar con 32.890 euros una actuación con CECOBI que la Asociación de Comercios de Bizkaia para trabajar en la creación de un mercado digital local que, a través de un proyecto piloto, apoye a los pequeños y medianos comercios.

Eduardo Andradek aipatu du talde popularrak proposamena babestuko duela, Ogasun zinegotziak esandakoarekin ados dagoelako; izan ere, tokiko merkataritza sustatzeko

Eduardo Andrade indica que el grupo popular apoyará la propuesta porque comparte lo indicado por el concejal de Hacienda ya que apoyan todas las iniciativas que se planteen para

proposatutako ekimen guztiak babesten dituzte, eta gobernuko taldeari eskatu diote alderdi horietan ere oposizioaren proposamenak kontuan har ditzatela.

Susana Andollok dio GUK taldeak ez duela proposamena babestuko, nahiz eta merkataritza babestearen alde egon. Batzordean zuzenean aurkezteko era kritikatu dute, eta merkatarien iritzia jaso behar zela. Adierazi du, halaber, aipatu zaienaren arabera, ekintza horren onuradunak saltoki txikiak eta kate handiak izango direla.

Santiago Sainzek, Ciudadanosen izenean, aipatu du proposamena Getxoko merkataritzarako interesgarria eta onuragarria dela eta, beraz, haren alde egingo dutela.

Ibon Rodriguezek, EH Bilduren izenean, proposamena mahai gainean uzteko eskatu nahi du, haren ostean eman zaien lankidetza hitzarmen bat baitago eta ez dute gustuko; izan ere, CECOBIk (elkarte honek jasotzen du diru laguntza), betebehar batzuk ditu, eta ideia on bat kudeatzeko badirudi kanpoko enpresa baten laguntza izango duela. Galdetu du zehaztuta emango den diru laguntzaren zati bat zergatik ez den emaitzen arabera jartzen, zergatik ez den zuzenean kudeatzen edo zergatik laguntza ez zaien saltokiei ematen… Diru publikoarekin enpresa pribatu bati laguntzeaz ari gara. Getxoko saltokiek urtetik urtera aldatu egiten den kuota bat ordaindu beharko dute. Getxo Enpresarekin eta Algortako Dendak elkartearekin hitz egin ondoren proiektua begi onekin ikusten dutela esan diete, baina informazio gehiago eskatzen dutela. CECOBIri diruz

potenciar el comercio local y piden al equipo de gobierno que atienda también en estos aspectos las propuestas de la oposición.

Susana Andollo manifiesta que GUK no va a apoyar la propuesta aunque estén de acuerdo con el apoyo al comercio. Critican la forma de presentar directamente a la comisión y creen que debería de haberse contado con la opinión de los comerciantes. Manifiesta también que, según se les ha indicado, que esta acción va a tener como beneficiarios el pequeño comercio y las grandes cadenas también.

Santiago Sainz, en nombre de Ciudadanos, manifiesta que es interesante y beneficioso para el comercio getxotarra la propuesta, por lo que la apoyará.

Ibon Rodírguez, en nombre de EH Bildu, pediría dejar sobre la mesa la propuesta ya que tras la misma hay un convenio de colaboración que se les ha facilitado y que no les satiface porque CECOBI, que es la que recibe la subvención, tiene unas obligaciones que a primera vista va a apoyarse en una empresa externa para gestionar una buena idea, pero pregunta por qué no se pone parte de la subvención que se va a dar definida en función de los resultados, por qué no se gestiona directamente o por qué la ayuda no se da a los comercios, etc. Se trata de ayudar con el dinero público a una empresa privada. Los comercios de Getxo van a tener que pagar una cuota que varía de año en año. Han consultado con las asociaciones Getxo Empresa y Algortako Dendak y les dicen que ven con buenos ojos el proyecto pero reclaman más

laguntzeko erabilitako dirua ondo erabilia izan daitekeela uste dute, baina ez da aipatzen zer gertatuko den saltoki gutxi atxikitzen badira, eta hala gertatuz gero, hurrengo urteetan planarekin jarraituko zen. Hitzarmena sinatu aurretik udaleko talde guztiak deitzeko eskatu dute ekarpenak egin ahal ditzaten, eta beraiek ekarpenak lehenago adierazitako irizpideei jarraituz egingo zituzten.

información. Creen que el dinero con el que se subvenciona a CECOBI puede estar bien dirigido pero no se indica qué pasa si son muy pocos los comercios que se adhieren y si en ese caso sigue el plan en los siguientes años. Piden que antes de firmar el convenio se convoque a los grupos municipales para que puedan realizar aportaciones que ellos realizarían con los criterios que han manifestado.

Inazio Uriartek EH Bilduri erantzun dio ez duela edukia azaltzeko arazorik, ez baitu hitzarmenean inolako dudarik ikusten eta, beraz, gainerako taldeen zalantzak argitzeko prest dago. Akordioa Getxoko saltoki askok izenpetuko dutela uste du, eta berak eman dizkiela azalpen guztiak Getxoko merkatarien bi elkarteei, eta bi horiek beraien babesa eman diela. GUK taldeari esan dio Getxoko merkataritza nola babes daitekeen proposatzen denaren aurkako botoa emanez, eta Getxoko merkataritza ez dutela babestu nahi uste du.

Inazio Uriarte replica a EH Bildu que no tiene problemas en explicar el contenido porque él no ve ninguna duda en el convenio y por tanto está dispuesto a clarificar las dudas del resto de los grupos. Cree que muchos comercios de Getxo suscribirán el acuerdo y que el mismo se ha explicado a las dos asociaciones de comerciantes de Getxo, las cuales han manifestado su apoyo. A GUK le dice que apoyar el comercio de Getxo votando en contra de lo que se plantea no lo entiende y opina que no quieren apoyar al comercio de Getxo.

Susana Andollok erantzun du ez dela bermatzen merkataritzak berak zeregin garrantzitsua betetzen duenik kudeaketan eta plataformak beraiengana jotzea, eta ordaindu behar dituzten kuoten bilakaera zein izango den argi ez dagoenez ere, proposamena ez dutela babestuko. Informazio gehiago izango den galdetu du, oposizioaren ekarpen batzuk onartuko al diren.

Susana Andollo replica que no se garantiza que el propio comercio tenga un papel importante en la gestión y que la plataforma se dirija a ellos, y como tampoco está claro cómo van a evolucionar las cuotas que tienen que pagar no van a apoyar la propuesta. Pregunta si se va a tener más información y si se van a admitir algunas aportaciones de la oposición.

Ibon Rodriguezek dio EH Bildu abstenitu egingo dela eta beraien iritzia alda dezaketela talde guztiak biltzeko konpromisoa badago, baina ez informatzeko soilik, baita hitzarmeneko testua hobetzeko erabakia hartzeko ere.

Ibon Rodríguez manifiesta que EH Bildu se va a abstener y podrían variar su opinión ante el compromiso de una runión de todos los grupos, pero no sólo para informar sino si se acuerda para mejorar el texto del convenio.

Jose Luis Landak gogora ekarri du CECOBIren ekimena dela, hau da, merkataritza ordezkatzen duen erakunde batena, eta tokiko merkataritza babesteko helburu bakarrarekin.

José Luis Landa recuerda que la iniciativa parte de CECOBI, es decir, de una organización representativa del comercio y con el único objetivo de apoyar al comercio local.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 17 boto (EAJ-PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos), kontrako 4 boto (GUK) eta 4 abstentzio (EH Bildu).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 votos en contra, GUK y 4 abstenciones, EH Bildu.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2016/58 zenbatekoa 32.890,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2016/58 de Crédito Adicional, por importe de 32.890,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | **Izendapena** Denominación | **Zenbatekoa** Importe en € |
|---|---|---|
| 005/4330/4817100 | CECOBI-ri TA (Ekonomia sustapena)<br>TC a CECOBI (Promoción económica) | 32.890,00 |
| Guztira<br>Total | | 32.890,00 |

## Finantzaketa / Financiación

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako<br>Remanente de tesorería para gastos generales | 32.890,00 |

**220.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA: GETXOKO UDALAREN ETA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN**

**220.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA SUSCRIPCIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y LA**

**ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA, 2016-2018 EPERAKO, "PUNTA BEGOÑAKO GALERIAK" HIGIEZIN HISTORIKO KULTURALAREN BALIOA NABARMENTZEKO.**

Proposamena irakurri ostean, Joseba Arregik hartu du hitza eta aipatu du proposamenak Punta Begoñako galerien balioa nabarmentzeko hitzarmena ahalbidetzen duela 2016tik 2018ra. Galeriak, memoria historikoa berreskuratzea da kontua, ikerketaren bidez ezagutza sortzea eta ekonomia sortzea ezagutza jarduera ekonomikora eramateagatik. Jasotzen den planak urteko aurrekontu ahalegina zehazten du eta informazio batzordean EHU/UPVk eta udalak egin beharreko jarduerak azaldu ziren, labur-labur osoko bilkuran azaldu direnak. Galerietan 5.000 bisitari baino gehiago izan direla esan du, eta jarduera horrek zenbait bilera zientifikoetan eta unibertsitateko masterretan oihartzuna duela. Amaitzeko, proiektua Euskadi 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana osatzen duten 50en barnean dagoela esan du.

Maite Arraizak adierazi duenez, EH Bilduk proposamena babestuko du Punta Begoñako galeriak herritar guztien ondare baitira, EHU/UPVrekin dagoen akordioa babestuko du, bai eta zaharberritzean Getxoko herritarrei ematen ari zaien zeregina ere; lan ildo horrekin jarraitu behar dela uste du.

Eduardo Andradek dio talde popularrak kontrako botoa emango duela. 2013aren hasieran alkateak plan

**UNIVESIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA PARA LA PUESTA EN VALOR DEL INMUEBLE HISTÓRICO CULTURAL "GALERÍAS DE PUNTA BEGOÑA" DURANTE EL PERIODO 2016-2018.**

HIRUGARRENA.- Alkatetza-udalburutzari ahalmena ematea erabaki hau betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo.

Bilera-gelara bihurtutako jaun-andreak hona, Santiago Sainz, Eduardo Andrade, Susana de Cos eta Maite Arraiza.

Se reincorporan al salón de sesiones Santiago Sainz, Eduardo Andrade, Susana de Cos y Maite Arraiza.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**224.- PP UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDAL TALDE POLITIKOEKO AURKEZTUTAKO MOZIOAK, LOTESLE ETA BETE BEHARREKO.**

Miguel Ibabek mozioa irakurri du.

Santiago Sainzek irakurri egin duen erdibideko mozio bat aurkeztu du:

*"LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko Udalbatza osoak erabaki du gobernu-taldeari galdatzea osoko bilkuretan onetsitako mozio GUZTI-GUZTIAK betearazi ditzan, gaitasun eta ahalmenaren aldetik egingarri badira.*

*BIGARRENA.- Memoria paratzea eta osoko bilkura bana urteko egitea, jarduki eta azter dadin osoko bilkuretan hartutako erabakietatik eta adostutako akordioetatik zeintzuk bete izan diren eta zeintzuk ez. Bete gabeak izatekotan, arrazoibidez behar den bezala adieraztea, zerengatik bete gabe dauden eta baldin ahal baledi, epea jartzea gerora bete ahal ditezen.*

*HIRUGARRENA.- Mozio hau udaleko hedabideetan jakinaraztea."*

Miguel Ibabek zuzenketa onartu du.

Susana Andollok adierazi du GUK taldeak ikusten duela gobernuko taldeak lantaldeak eta parte hartzeko formulak komeni zaionaren edo ez zaionaren arabera proposatzen dituela. Informazio batzordeetan nahiz osoko bilkuretan elkarrekin lan egin behar dela uste du, eta ez da utzi behar akordioak bulego itxietan har daitezen.

Teresa Escalantek dio mozioak

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**224.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/MOCIONES DE LOS PARTIDOS POLÍTICOS VINCULANTES Y DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO.**

Miguel Ibabe da lectura a la moción.

Santiago Sainz presenta una trasaccional a la que da lectura:

*"PRIMERO.- El Pleno del Ayuntamiento Getxo acuerda exigir al equipo de gobierno el cumplimiento de TODAS las mociones aprobadas en pleno que sean viables técnicamente.*

*SEGUNDO.- Que se elabore una memoria y se celebre un Pleno anual donde se analicen los acuerdos plenarios cumplidos y los incumplidos. En cuanto a estos últimos que se detalle de manera justificada la razón de su incumplimiento, y si es posible, fijar un plazo para su cumplimiento futuro.*

*TERCERO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales."*

Miguel Ibabe acepta la enmienda.

Susana Andollo manifiesta que desde GUK se observa que el equipo de gobierno plantea grupos de trabajo y fórmulas de participación según le convenga o no. Cree que hay que trabajar conjuntamente tanto en comisiones informativas como en Pleno y no dejar que los acuerdos se formalicen en despachos cerrados.

Teresa Escalante indica que la moción

nahasketa dakarrela, mozioen funtzionaltasunari buruzko administrazio doktrinan kontrol eta fiskalizazioko elementu gisa adostasuna baitago. Haiek PPren gobernuak sustatutako lege aldaketen bidez jaso ziren. Mozioen bidez ezin da gobernatu, eta aurkeztutakoaren antzera, propaganda izaera baino ez du, proposamen zehatzik ez baitute; izan ere, gaiak dagokien administrazio espedienterik gabe onartzea eta abar proposatzen dute.

plantea confusión ya que existe consenso en la doctrina administrativa acerca de la funcionalidad de las mociones como elemento de control y fiscalización. Estas se incorporaron por modificaciones legislativas impulsadas por el gobierno del PP. No cabe gobernar a través de mociones, que como la presentada, sólo tienen carácter propagandístico ya que carecen de propuestas concretas porque plantean aprobar cuestiones sin el correspondiente expediente administrativos, etc.

Koldo Iturbek aipatu duenez, atzo bertan Mariano Rajoyk Parlamentuak onartutako mozioei dagokienez esan zuen ez direla aplikagarriak eta organo bakoitzaren eskumenak errespetatu behar direla. Adierazi du, juridikoki, behin baino gehiagotan aipatu den moduan, legezkotasun printzipioan oinarrituz, onartzen diren mozioak ez direla lotesleak esandakoari eusten dioten arrazoiak adieraziz, EHU/UPVko katedradunek egindako txosten baten bidez ere babestu direnak. Gainera, aipatu du gobernatu nahi badute zentsura mozio bat proposatuz egin behar dutela, hori baita indarrean legeriak jasotzen duena.

Koldo Iturbe indica que ayer mismo Mariano Rajoy respecto a mociones que ha aprobado el Parlamento dice que no son de aplicación y que hay que respetar las competencias de cada órgano. Manifiesta que, jurídicamente, tal como se ha manifestado reiteradamente, en base al principio de legalidad, no son vinculantes las mociones que se aprueban indicando las razones que soportan lo manifestado, que han sido también refrendadas por un informe de catedráticos de la EHU/UPV. Indica, asimismo, que si quieren pasar a gobernar tienen que hacerlo a través de plantear una moción de censura que es lo que recoge la legalidad vigente.

Miguel Ibabek bere hitz egiteko txanda isilean igarotzea proposatu du, hitz egin izanaren balio berbera baitu.

Miguel Ibabe plantea utilizar su turno en silencio ya que tiene el mismo valor que si interviniera.

Alkateak esan dio hitz egiteko bere txanda erabili behar ez badu, hura hori egitea eskatzen duen Udalbatzako hurrengo kideari emango diola.

El Alcalde le indica que si no va a hacer uso de su palabra en su turno cederá el mismo al siguiente corporativo que lo solicite.

Miguel Ibabek erantzun du berdin diola hitz egitea, akordio batera heltzeko borondaterik ez baitago. Getxoberrin testigantzako akordio

Miguel Ibabe replica que es igual intervenir que no ya que no hay ninguna voluntad de llegar a un acuerdo. Indica que en el Getxoberri se

modura onartzen diren mozioak aipatzen direla esan du. Mozioak aintzat hartu behar ez badira, osoko bilkurak gainerako edukiengatik nabarmen murriztuko zirela esan du. Herritarren partaidetzaz hitz egitea eta herritarren iritzia sustatzea kritikatu du, eta zinegotziek aurkeztutako mozioei baliorik ez ematea. Osoko bilkuran hartutako erabakiak aurrera ateratzeko borondatea eskatu dio gobernuko taldeari. Talde sozialistari esan dio ez dela propaganda kontua, Getxoko herritar askoren iritzia helaraztea baizik. Alkatea kritikatu du 214. puntuan gehiengoak erabakitzen duela esan izanagatik, baina hori ez ez duela osoko bilkuran betetzen.

refieren a las mociones que se aprueban como acuerdos testimoniales. Manifiesta que si no se van a tener en consideración las mociones, los Plenos por el resto del contenido se reducirían de manera muy importante. Critica que se hable de participación vecinal y se potencie la opinión de los vecinos pero no se de ningún valor a las mociones que presentan los concejales. Pide voluntad al equipo de gobierno para sacar adelante los acuerdos plenarios. Al grupo socialista le dice que no se trata de propaganda sino de trasladar la opinión de muchos vecinos de Getxo. Critica al Alcalde que dijera en el punto 214 que la mayoría decide pero eso no lo aplica en el Pleno.

Maite Arraizak adierazi duenez, mozioa babestuko dute gobernuko taldeak osoko bilkuretako erabakiak bete behar dituztela irizten baitute. Badakite legez betebehar juridikorik ez dagoela, baina herritarrekiko errespetuagatik eta printzipio demokratikoengatik osoko bilkuretako erabakiak kontuan hartu behar dituzte. Harrigarria iruditzen zaio PPk osoko bilkuran demokraziaz eta partaidetzaz hitz egitea, baina mozioa babestuko du.

Maite Arraiza manifiesta que van a apoyar la moción ya que opinan que el equipo de gobierno debe cumplir los acuerdos plenarios. Saben que legalmente no existe una obligación jurídica pero por respeto a la ciudadanía y por principios democráticos deben tener en cuenta los acuerdos plenarios. Le parece extraño que el PP hable de democracia y participación en el Pleno pero apoyará la moción.

Santiago Sainzek uste du testimoniala bada ere, gehiengoaren iritzia zein den jakitea garrantzitsua dela. Onartutako mozioak ez betetzeak herritarrengan nahasketa soziala sortzen duela esan du, haiek ez baitute ulertzen osoko bilkuran onartutakoa ezertarako balio ez izatea. Politika arduratsuaren adibide bat da osoko bilkura egitea erabakien betetze maila aztertze aldera, eta herritarrek datu horiek jakin ditzatela; beraz, mozioaren balioa azpimarratu du.

Santiago Sainz opina que aunque sea testimonial es importante que se conozca la opinión de la mayoría. Manifiesta que no cumplir las mociones aprobadas genera confusión social en la ciudadanía, ya que ésta no entiende que no valga para nada lo que se apruebe en el Pleno. Cree que es un ejemplo de política responsable que se celebre un pleno para analizar el grado de cumplimiento de los acuerdos y que los vecinos conozcan estos datos por lo que recalca el valor de la moción.

Teresa Escalantek PPri esan dio

Teresa Escalante indica al PP que si se

udaleko osoko bilkuretara duintasuna itzultzeaz ari bagara, hobeto izango zela, hasteko, arrazoitze maila handitzea.

trata de devolver la dignidad a los plenos municipales sería mejor empezar por elevar el nivel de la argumentación.

Koldo Iturbek PPri galdetu dio mozioak testimonialak direla esatean zer gezur esaten den, Getxoberrik jasotzen den moduan, eta gogora ekarri du PPk eta Ciudadanosek Estatuan izenpetutako akordioan ez zaiola inolako erreferentziarik egiten egungo egoera aldatuko duen legeri aldaketa bati. Gai lotesleetara heltzeko, beste esparru batzuetan izan diren antzeko erabakiak beharrezkoak direla uste du, eta erabaki horiek gobernuko taldeak bete egiten dituela. Gobernuko taldearekin ados ez badago, irtenbide juridikoa zentsura mozioa proposatzea dela azpimarratu du.

Koldo Iturbe pregunta al PP qué hay de incierto en que las mociones son testimoniales, como indica el Getxoberri, y recuerda que en el acuerdo suscrito por PP y Ciudadanos en el Estado no hay ninguna referencia a un cambio de la legislación que modifique la situación actual. Cree que para llegar a cuestiones vinculantes son necesarios acuerdos como los que se han dado en otros ámbitos y que esos acuerdos el equipo de gobierno los cumple. Insiste en que si no se está de acuerdo con el equipo de gobierno la solución jurídica es plantear una moción de censura.

Miguel Ibabek adierazi du talde popularrak Getxoren eta bertako herritarren alde lan egiten duela, eta mozioan gobernuko taldea irekiagoa izan dadin eta hitz egiteko prestutasun handiagoa izan dezan eskatu dute. Adostasuneko puntuak osoko bilkurako erabakiak direla uste du. Udaleko araudi organikoak txanda nola erabili behar den ez duela zehazten esan du eta, beraz, hura hitz egiteko beharrik gabe erabiltzeko aukera izatea eskatu du. PSE-EEk esan dio arrazoi eskasa iruditzen bazaio Getxoko herritarren interesak defendatzea, argi eta garbi adieraz dezala. Koldo Iturberi esan dio, bere hitza betetzen dutelari buruz, aurreko puntuan biktimei buruz 2009an hartutako erabakia ez dutela bete.

Miguel Ibabe manifiesta que el grupo popular trabaja por Getxo y su ciudadanía y piden en la moción que el equipo de gobierno abra sus miras y sea más dialogante. Cree que los puntos de consenso son los acuerdos del Pleno. Manifiesta que el ROM no determina cómo debe usarse el turno y por tanto reclama la posibilidad de utilizar sin expresión verbal. Al PSE-EE le indica que si les parecen argumentos pobres defender los intereses de la ciudadanía de Getxo, que lo diga claro. A Koldo Iturbe le manifiesta, respecto a que cumplen su palabra, que en el punto anterior han roto el acuerdo adoptado en el año 2009 en relación a las víctimas.

Koldo Iturbek erantzun du ez duela ulertzen zergatik saihestu nahi duten PPk gobernatzen duen beste erakunde batzuetan mozioak ez direla lotesleak;

Koldo Iturbe replica que no entiende porque quieren obviar que en otras instituciones, en las que gobierna el PP, las mociones no son vinculantes ya que

izan ere, koherentea bada, onartu beharra du. Gobernuko taldearekin lortutako akordioak bete egin direla gogora ekarri du. Mozioek legeriatik sortutako ondorioak dituzte, eta gobernatzeko modua aldatu nahi izanez gero, zentsura mozioaren baliabidea dute.

si es coherente debe reconocerlo. Recuerda que los acuerdos a los que han llegado con el equipo de gobierno se han cumplido. Las mociones tienen los efectos derivados de la legislación y si quieren cambiar la forma de gobernar tienen el recurso a la moción de censura.

Miguel Ibabek talde guztiei eskatu die alkateak aurrez esandakoari buruz hausnar dezatela, demokrazian gehiengoak erabakitzen duela; izan ere, errealitatean onartutako mozioen % 10 inguru bakarrik egikaritu da.

Miguel Ibabe pide a todos los grupos que reflexionen sobre la afirmación que previamente ha manifestado el Alcalde, que en democracia la mayoría decide, porque la realidad es que únicamente se ha ejecutado cerca del 10% de las mociones aprobadas.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 14 boto (PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos) eta kontrako 11 (EAJ-PNV, PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Udal batean egoten den Udalbatza toki administrazio baten gobernuko organo gorenena da. Bertan batzen dira talde politiko guztietako zinegotziak, eta alkatea da burua. Zinegotzi guztiak ordezkatzen dituen organoa, sentsibilitate, ideologia eta udalerriari buruzko ikuspuntu guztiak batzen dituena kide bakoitzaren bitartez.

El Pleno en un Ayuntamiento es el máximo órgano de gobierno de una administración local. En él se reúnen todos los concejales de los diferentes partidos políticos presididos por el Alcalde. Órgano de representación de todos los ediles donde están significadas todas las sensibilidades, ideologías y visiones del municipio a través de cada uno de los miembros de la Corporación.

Udalbatzari buruz hitz egitean ardura, lana, udal-ikuspuntua eta bizilagunak hartu behar dira kontuan. Gure udalerriaren orainari eta etorkizunari buruz hitz egitea da. Baina planteamendu hori oso urrun dago Getxoko errealitatetik, non osoko bilkuran onetsitako talde politikoen ekimenak alkatearen tiraderan pilatzen diren, baztertuta, irakurri, aztertu eta

Hablar de Pleno Municipal implica responsabilidad, trabajo, visión municipal, vecinos. Es hablar del presente y futuro de nuestro municipio. Planteamiento que dista mucho de la realidad de Getxo donde las iniciativas de los partidos políticos, aprobadas en el Pleno, engordan el cajón del Alcalde donde se dejan abandonadas sin estudiar, analizar ni cumplir.

bete gabe.

Zoritxarrez, Eusko Alderdi Jeltzalearen jarrera tradizional eta zaharkituak eta bere Gobernu Batzarrak ez dute egiten osoko bilkura hauek parte hartzeko adierazpen demokratikoa izaterik, eta udaleko ordezkaritza organo gorenak ere ez du hori lortzen. Getxoko Udaleko Udalbatza demokrazia eta parte-hartzearen adierazpenaren kontrakoa da. Gobernu Taldea parte-hartze hori saltzen saiatu da, Auzoz Auzo eta Getxo Txukun bezalako ekimenen bitartez.

Por desgracia, la conducta, tradicional y antigua, del Partido Nacionalista Vasco y su gobierno local hace que estos plenos no sean la expresión democrática de participación, ni tan siquiera el máximo órgano de representación municipal. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo es lo contrario a una expresión de democracia y participación. Participación que el equipo de gobierno trata de vendernos a través de iniciativas como Auzos Auzo y el actual Getxo Txukun.

Getxoko Udal Talde Popularrak uste du Udalbatza parte-hartzailea izan behar dela eta talde politiko bakoitzak aurkezten dituen mozioak, osoko bilkuran onetsitakoak, lotesleak izan behar direla, Getxoko bizilagun gehienen ikuspuntua islatzen dutelako.

El Grupo Municipal Popular de Getxo considera que el Pleno del Ayuntamiento debe ser participativo y que las mociones que se presentan por cada uno de los partidos políticos, aprobadas en Pleno, deben ser vinculantes porque expresan el sentir de la mayoría del pueblo de Getxo.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten du:

Es por lo que el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko Udalbatza osoak erabaki du gobernu-taldeari galdatzea osoko bilkuretan onetsitako mozio GUZTI-GUZTIAK betearazi ditzan, gaitasun eta ahalmenaren aldetik egingarri badira.

PRIMERO.- El Pleno del Ayuntamiento Getxo acuerda exigir al equipo de gobierno el cumplimiento de TODAS las mociones aprobadas en pleno que sean viables técnicamente.

BIGARRENA.- Memoria paratzea eta osoko bilkura bana urteko egitea, jarduki eta azter dadin osoko bilkuretan hartutako erabakietatik eta adostutako akordioetatik zeintzuk bete izan diren eta zeintzuk ez. Bete gabeak izatekotan, arrazoibidez behar den bezala adieraztea, zerengatik bete gabe dauden eta baldin ahal baledi, epea jartzea gerora bete ahal ditezen.

SEGUNDO.- Que se elabore una memoria y se celebre un Pleno anual donde se analicen los acuerdos plenarios cumplidos y los incumplidos. En cuanto a estos últimos que se detalle de manera justificada la razón de su incumplimiento, y si es posible, fijar un plazo para su cumplimiento futuro.

HIRUGARRENA.- Mozio hau udaleko hedabideetan jakinaraztea.

TERCERO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

**225.- PP UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ROMO AUZUNEA OSOTORO ERABERRITZEKO ETA HOBETZEKO EGIN BEHARREKO URRATSAK.**

**225.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/MEDIDAS DE REFORMA Y MEJORA INTEGRAL PARA EL BARRIO DE ROMO.**

Iñaki Gamerok mozioa irakurri du.

Iñaki Gamero da lectura a la moción.

Enrique Pradak erdibideko zuzenketa bat aurkeztu du ondorengo puntua sartzeko, eta azken hori irakurri du:

Enrique Prada presenta una enmienda transaccional para la inclusión del siguiente punto al que da lectura:

*"BIGARRENA. – Auzokoak berak partaide eta tarteko bihurraraztea, Kultur Etxearen inguruarekin zerikusia daukan partaidetza-prozesuaz baliaturik, ikas ahal dadin, zer nolako hobekuntzak eta aldaketak egitea nahi ote luketen."*

*"SEGUNDO. - Que se haga partícipe a los vecinos y vecinas de barrio aprovechando el proceso participativo relacionado con el entorno de la Kultur Etxea, para saber qué tipo de mejoras y modificaciones realizarían en la zona."*

Iñaki Gamerok erdibideko zuzenketa onartu du.

Iñaki Gamero acepta la enmienda trasaccional.

Oier Iturraldek dio EH Bildu mozioarekin ados dagoela, nahiz eta parte hartzean ez den aipatzen Nagusien Etxeko lekualdaketen aurkako plataforma berria, baina agian ez da aipatu duela gutxi sortu delako.

Oier Iturralde manifiesta que EH Bildu está de acuerdo con la moción aunque en la participación no se alude a una nueva plataforma en contra de los traslados de la Nagusien Etxea que quizá se haya omitido por su reciente creación.

Enrique Pradak mozioa babestuko dutela esan du. Mozio bat aurkeztu dutela gogorarazi du, eta bertan, Getxoko zenbait zonalde eta Romoko beste batzuk hobetzea eskatzen zela, baina PPk ez zuela babestu, honako honetan oinarrituz: ezin direla era horretan aurkeztu, nahiz eta GUK taldeak PPren babesarekin aurrekontuei egindako zuzenketa baten berdina izan; hala, PPri beraien

Enrique Prada indica que apoyarán la moción. Recuerda que han presentado una moción que pedía mejorar diferentes zonas de Getxo y entre otras algunas de Romo y que el PP no la apoyó, justificándose en que no se podrían presentar así, pese a que era idéntica a una enmienda a los presupuestos que presentó GUK y el PP apoyó y pide al PP que les clarifique su criterio de cómo hay que trabajar.

irizpidea argi dezatela eskatu die, nola lana egin behar den.

Joseba Arregik, gobernuko taldearen izenean, mozioa propaganda hutsa dela adierazi du, udalak Romon egiten dituen ohiko jardueren gaineko aipamen orokorrak baitira. Azkeneko 40 urteotan kale zehatz batzuetan ezer ez dela egin, baieztapen hori ez dela egia esan du. Duela urte batzuk Romon hobekuntza zehatz batzuk egiteko mozio bat aurkeztu zela gogora ekarri du, eta hura egikaritu dela. Amaitzeko, gobernuko taldeak orain arte bezala jarraituko duela aipatu du, Romo hobetzen segitzeko lan egiten.

Joseba Arregi, en nombre del equipo de gobierno, estima que la moción es puramente propagandística ya que son referencias genéricas de actuaciones que son habituales que se realicen por parte del ayuntamiento en Romo. Manifiesta que no son ciertas las referencias sobre calles concretas sobre las que se dice que nada se ha hecho en los últimos 40 años. Recuerda que hace unos años se presentó una moción para mejoras concretas en Romo, que se han ejecutado. Finaliza indicando que el equipo de gobierno como hasta ahora seguirá trabajando en la mejora de Romo.

Iñaki Gamerok erantzun du mozioa tonu bakezalean aurkeztu dela, eta Romok egungoa baino egoera hobea merezi duela iritzi dute. Romoko auzotarrei errespetua zor zaiela uste du, eta are gehiago Ibaiondo kalekoei; kale hori orain obretan dagoela kontuan hartuta, eta hura altxatu behar denez lurpeko edukiontziak jartzeko, une hori beste era bateko jarduerak egiteko baliatu zitekeen. Ohartarazpen hau egin nahi dute Romo ahanzturan gera ez dadin, eta Romoko Kultur Etxeko ingurunearen partaidetza prozesua baliatuz, prozesu horren esparrua zabal dadila.

Iñaki Gamero replica que la moción se ha presentado en un tono conciliador y creen que Romo se merece una situación mejor que la actual. Opina que se debe un respeto a los vecinos y vecinas de Romo y más a los de la calle Ibaiondo manifestando que ahora que está en obras dicha calle y se va a levantar la misma para ubicar contenedores soterrados se podía aprovechar para realizar otro tipo de actuaciones. Quieren dar un toque de atención para que Romo no sea olvidado y aprovechando el proceso de participación del entorno de la Kultur Etxea de Romo se amplíe el ámbito de dicho proceso.

Joseba Arregik duela hogei urtetik egindako jarduerak jasotzen dituen plano bat banatu du, bertan egikaritzen ari direna eta egitea aurreikusten dena, eta urte horietan Romoko kiroldegia, kultur etxea, aparkalekuak eta abar eraiki direla esan du. Amaitzeko, gobernuko taldea Romoko esku hartzeen gainean akordioak lortzeko

Joseba Arregi distribuye un plano que recoge las actuaciones realizadas desde hace veinte años, lo que se está ejecutando y lo que está previsto realizar, y dice que en esos años se han construido el polideportivo de Romo, la Kultur Etxea, aparcamientos, etc. Finaliza indicando que el equipo de gobierno está abierto a llegar a

irekita dagoela dio.

acuerdos sobre intervenciones en Romo.

Enrique Pradak erantzun duenez, proposatutako zuzenketak parte hartzea zehazten du, aurreikusitako parte hartzeko prozesu bat jasotzen baita. Lanak egin diren kaleak daudela esan du, baina oso txarto dagoela eta Romon jarduteko eskatu du.

Enrique Prada replica que la enmienda planteada concreta la participación ya que se incorpora un proceso participativo previsto. Manifiesta que hay calles en las que se ha actuado pero que está muy mal y pide que se actúe en Romo.

Iñaki Gamerok herritarrentzat onuragarria den guztian lanean jarraituko dutela erantzun du. Mozioak jarduera zehatz batzuk eskatzen ditu, oso nekezak ez direnak. Romo utzita dagoela uste du, ez dela propaganda edo oportunismoa. Ibaiondo kaleko lurra altxatzen ari direla kontuan hartuta, saneamenduak, lorezaintza, argiztapena eta abar hobetzeko aprobetxa daitekeela uste du. Esperientziak erakusten die gobernuko taldearen jarduerak erdiesteko ekin eta ekin, temati jarraitu behar dutela.

Iñaki Gamero replica que van a seguir insistiendo en todo lo que consideren beneficioso para la ciudadanía. La moción pide unas actuaciones concretas y que no son muy gravosas. Opina que Romo está abandonada y no se trata de propaganda ni de oportunismo. Manifiesta que ya que se está levantando el suelo de la calle Ibaiondo se puede aprovechar para mejorar saneamientos, jardinería, iluminación, etc. La experiencia les indica que para conseguir actuaciones del equipo de gobierno necesitan insistir.

Joseba Arregik erantzun du mozioaren helburua ondo geratzea baino ez dela, eta PPri galdetu dio zer egingo zuen Santa Eugenia eta Lope de Vega kaleetan aparkalekuei eta espaloiei dagokienez.

Joseba Arregi replica que la moción únicamente quiere quedar bien y pregunta al PP qué haría en la calle Santa Eugenia y la calle Lope de Vega en relación con los aparcamientos y las aceras.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 14 boto (PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos), eta 11 abstentzio (EAJ-PNV eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción.

Gure herriaren, Getxoren, ezaugarrietako bat da nortasun propioa duten hainbat auzo izatea. Udaleko Talde Popularrarentzat, Romok, dudarik gabe hobetzeko eta duin bihurtzeko jarduketak behar ditu.

Nuestro pueblo, Getxo, se caracteriza por tener una variedad de barrios con sus propias características. Para el Grupo Municipal Popular, Romo, es un barrio que, sin duda alguna, necesita actuaciones que lo mejoren y

dignifiquen.

Gure udalerriko auzo jendetsu eta jator horrek arazo eta gabezia handiak ditu. Getxo osoan dauden arazoak izateaz gain, besteak beste merkataritza jardueraren galera eta aparkaleku falta, beste auzo batzuk baino langabezia-tasa altuagoa dago Romon, eta biztanle nagusi asko dago bertan.

Este barrio, tan populoso y castizo de nuestro municipio tiene grandes problemas y carencias. Además de tener los problemas generales de Getxo, como pueden ser la pérdida de actividad comercial, falta de aparcamientos, posee unos índices de desempleo más elevados que otros barrios, y su población es de mayor edad.

Gure iritziz, administrazio publikoak baliabideak jartzeko neurriak hartu behar ditu Romoko biztanleen bizitza kalitatea hobetzeko.

A nuestro entender, se deben adoptar medidas por la administración pública para dotar de recursos que puedan mejorar la calidad de vida de nuestros vecinos en Romo.

Mozio honetan hirigintzaren hobekuntzan eta Romoko erdiguneko hornidura publikoetan jarri nahi dugu arreta.

En esta moción nos queremos centrar en la mejora urbanística y de dotaciones públicas en el centro de Romo.

1.- Uste dugu, orain inoiz baino gehiago, beharrezkoa dela Ibaiondo kalea egokitzea.

1.- Pensamos, que es necesario, ahora más que nunca, que se acometa un acondicionamiento de la calle Ibaiondo.

Kale hau oinezkoen kalea da, eta lurzorua egoera penagarrian dago orain dela urte batzuetatik, eta nahikoa istripu gertatzen dira lurra irristagarria delako edo jendeak estropezu egiten duelako. Ez dago inolako hornidura publikorik.

Esta calle es peatonal, y su suelo se halla en un estado lamentable desde hace varios años, llegándose a producir bastantes accidentes, por resbalones o tropiezos. Carece de todo tipo de dotación pública.

Une honetan, zabor-edukinontziak lurpean jartzeko obrak egiten ari dira, eta hoditerien norabidea aldatzen ari dira aurrekoa gauzatu ahal izateko. Lan horiek egin ahal izateko kaleko lurzoru guztia apurtu eta altxatu behar da. Horregatik eskatzen dugu obra horiek egiten ari direla aprobetxatuz, hainbat arazo eman dituen kale honetako baldosazko zorua hobetzeko.

En estos momentos, se están realizando obras, para instalar los contenedores de basura soterrados, además de desviar las tuberías para que esto se pueda llevar a cabo. Esto supone romper y levantar todo el suelo de la calle. Es por ello, que pedimos que se aprovechen dichas obras para mejorar el suelo baldosado de esta calle que tantos problemas ha creado.

Ez dugu nahi baldosazko zoru berdina

No queremos que se vuelva a poner el

jartzea, aurretik jarri diren txaplaten gainean txaplata gehiago jartzea litzatekeelako. Kontuan izan behar dugu Ibaiondo kaleak erreforma berezia merezi duela, Xake Plaza eta Santa Eugenia plazen arteko oinezkoen pasabidea delako.

mismo suelo baldosado, porque sería poner parches, a unos parches que ya se han puesto anteriormente. Tengamos en cuenta que la calle Ibaiondo merece una reforma especial, porque es el paso de tránsito peatonal entre la Plaza del Ajedrez y la Plaza Santa Eugenia.

2.- Honako espazioa hobetu eta duin bihurtu nahi dugu: San Jose elizaren espaloien eremua, Ezequiel Agirre, Etxague Generalaren eta Aurrezki kutxa kaleekin batera. Adibide bezala nabarmendu behar dugu San Jose elizaren oinezkoen eremua ez dela hobetu eta bertan ez dela jarduketarik egin orain dela berrogei urtetik.

2.- Queremos que se mejore y dignifique el espacio de aceras de la iglesia de San José, junto con las calles Ezequiel Aguirre, General Echague, y calle Caja de Ahorros. Sirva de ejemplo, que la zona peatonal de la Iglesia San José no se ha mejorado ni realizado actuaciones de mejora desde hace cuarenta años.

Une honetan, prozesu parte-hartzaile bat egiten ari dira Romoko Kultur Etxeko eremua nola geratuko den erabakitzeko. Prozesu hori aprobetxatu eta jarduketak egiteko eremua albo-alboan dagoen espaziora zabaltzea nahi dugu, hain zuzen ere aurretik aipatu ditugun kaleetara.

En estos momentos se esta realizando un proceso participativo para decidir como va a quedar el entorno de la Kultur Etxea de Romo. Queremos que se aproveche dicho proceso y que se amplíe a la zona inmediatamente colindante, como son estas calles que indicamos.

Proposatzen ditugun neurrien artean, lehendabizi egin behar direnak lurzoruak, espaloiak eta baldosak hobetu eta argiztapen berria jartzea dira. Parterre, jardinera eta zuhaitz duinak jartzea. Honakoak hornitzea: kalitatezko altzari publikoak, bankuak, ume eta helduentzako jokoak, iturriak, gerizpea duten eremuak eta bizilagunentzako onuragarria izan daitekeen beste edozer gauza.

Las medidas que proponemos consistirían primero en la mejora de suelos, aceras, baldosas e iluminación nuevas. Instalación de parterres y jardineras y arbolado dignos. Dotación de mobiliario, público de calidad, bancos, juegos para niños y personas mayores, fuentes, zonas de sombra, y cualquier otra que se pueda ser beneficiosa para sus vecinos.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkezten dio Udalbatzari, aztertu eta onetsi dezan:

Por todo ello el Grupo Municipal Popular eleva ante este pleno para su debate y aprobación la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO

LEHENENGOA.- Adierazitako ildoari jarraiki, Romoko auzoan hobekuntzak egitea onestea.

PRIMERO.- Que se apruebe realizar mejoras en el barrio de Romo en el sentido señalado.

BIGARRENA. – Auzokoak berak partaide eta tarteko bihurraraztea, Kultur Etxearen inguruarekin zerikusia daukan partaidetza-prozesuaz baliaturik, ikas ahal dadin, zer nolako hobekuntzak eta aldaketak egitea nahi ote luketen.

HIRUGARRENA.- Mozio hau udaleko hedabideetan jakinaraztea.

SEGUNDO. - Que se haga partícipe a los vecinos y vecinas de barrio aprovechando el proceso participativo relacionado con el entorno de la Kultur Etxea, para saber qué tipo de mejoras y modificaciones realizarían en la zona.

TERCERO. Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**226.- PP UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXO ANTZOKIAREN KONTUEN IKUSKAPENA.**

Eduardo Andradek mozioa irakurri du. Getxo Antzokiari buruz hainbat ikuspegitatik hitz egin daitekeela uste du, bere bideragarritasun azterketa ezatik, egindako urbanizaziotik, plazari emandako erantzunetik, baina kostu ekonomikoaren ikuspegitik bakarrik hitz egingo dute. Jakin nahi dute obra nola desbideratu den aurreikusitako kostuaren % 53 era honetako aldaketarik eraman gabe osoko bilkurara. Horretarako, kanpo auditoria bat eskatu du desbideratze hori justifikatzen duten arrazoiak argitzeko eta haien legezkotasuna aztertzeko. Getxok Getxo Antzokian gertatutakoa jakin behar duela uste du.

Joseba Arregik dio mozioak tristura handia sorrarazten diola, erakundearen beraren eta bertako langileen jarduera zalantzan jartzen baita. Mozioak ez duela egia esaten uste du. 2014ko abenduan betetzen ari den prezioen koadro bat eta gastuen aurreikuspen bat eman zitzaiela gogorarazi du. 32 milioiko oinarrizko proiektua onartu zen 2010ean, % 16ko BEZarekin, eta ia

**226.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/AUDITORÍA GETXO ANTZOKI.**

Eduardo Andrade da lectura a la moción. Indica que respecto a Getxo Antzokia se puede hablar desde distintos puntos de vista, desde la falta de su estudio de viabilidad, desde la urbanización realizada, desde cómo se ha resuelto la plaza, pero van a hablar únicamente desde el punto de vista del coste económico. Quieren saber cómo se ha desviado la obra en un 53% del coste previsto y sin que se haya llevado ninguna modificación de este tipo al Pleno. Para ello pide una auditoría externa para aclarar razones que justifiquen esta desviación y analizar la legalidad de las mismas. Cree que Getxo debe conocer lo que ha pasado con el Getxo Antzokia.

Joseba Arregi manifiesta que la moción le produce una profunda tristeza ya que se pone en duda lo que es la actividad de la propia institución y de sus empleados. Cree que la moción no se atiene a la verdad. Recuerda que en diciembre de 2014 se les entregó un cuadro de precios y previsiones de gastos que se está cumpliendo. El proyecto básico se aprobó en el 2010 en

obra guztian BEZa % 21 izan da. 2010. urteaz geroztik, KPI % 6,6 handitu da, eta segurtasun arloko eskakizunak aldatu dituzten lege aldaketak ere izan dira. Mozioetan hartutako erabakiak ere egikaritu dira, azpiegituretan eta proiektu berrietan gastuak areagotzea ekarri dituztenak. Aldaketa horiek guztiak aplikatzen badira, zifra justifikatzen da. 2014an 40 milioiez hitz egiten zen dagoeneko. Mozioan, obrari obra zuzendaritzen 3,5 milioi gehitzen zaizkio eta horniduren 6 milioi oinarrizko proiektuan jasota ez zeudenak; beraz, ez dakar inolako desbideratzerik. Zonaldea urbanizatu dela ere adierazi du, eta urbanizazioa zabaldu egin dela hasierako aurreikuspenarekin alderatuz. Obrak oniritzi tekniko guztiekin egikaritu direla gogorarazi du, eta indarrean dagoen legeriak zehazten duen moduan fiskalizatuta. Amaitzeko, PPk kontu hori Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltzari eraman ziola esan du, eta haren salaketa artxibatu egin zela.

32 millones, con un IVA del 16% y el IVA durante prácticamente toda la obra ha sido el 21%. Desde el año 2010 el IPC se ha incrementado en un 6,6%, también ha habido cambios legislativos que han modificado las exigencias en materia de seguridad. Se han ejecutado también acuerdos adoptados en mociones que ha supuesto incrementos de gastos en infraestructuras y nuevos proyectos. Si se aplican todas estas modificaciones se justifica la cifra. En el año 2014 ya se habló de 40 millones. En la moción, a la obra también se les suman 3,5 millones de direcciones de obra y 6 millones de suministros que no estaban contemplados en el proyecto básico y, por tanto, no supone ninguna desviación. Manifiesta también que la zona se ha urbanizado y que la urbanización se ha ampliado respecto a la previsión inicial. Recuerda que las obras se han ejecutado con todos los vistos buenos técnicos y fiscalizado según determina la legislación vigente. Finaliza indicando que el PP llevó esta cuestión a la Fiscalía Anticorrupción y su denuncia fue archivada.

Enrique Pradak gogora ekarri du GUK taldeak otsailean batzorde bat osatzeko mozioa bat aurkeztu zuela gastuak kontrolatze aldera. Obrak Lurzoruaren Udal Ondaretik datozen 15 milioirekin finantzatu dira, eta bere taldearen iritziz, gazteentzako babes etxebizitzak sortzeko erabili beharko ziren. Getxo Antzokiak kontrol handiagoa behar du egikaritzeko garaian, eta bere funtzionamenduari dagokionez, zer dagoen aurreikusita jakitea falta da. Proposatzen zuten batzordea sortzeko beharra dagoela errepikatu du nola kudeatu behar den jakiteko. Inprobisazioa eta kontrol falta daudela uste du, eta horrek desfase ekonomikoa sortzen duela. Gobernuko taldeak

Enrique Prada recuerda que GUK en febrero presentó una moción para formar una comisión para controlar los gastos. Las obras se han financiado con 15 millones provenientes del Patrimonio Municipal del Suelo, que en opinión de su grupo debieran destinarse para generación de viviendas de protección para jóvenes. El Getxo Antzokia necesita un mayor control en su ejecución y hace falta conocer qué está previsto respecto a su funcionamiento. Insiste en la necesidad de crear la comisión que planteaban para saber cómo se va a gestionar. Cree que existe improvisación y descontrol y eso genera desfase económico. Les gustaría que el equipo de gobierno

proiektuak eta hura abian jartzeak sorrarazten dizkieten zalantza guztiak argitu ziezazkiela nahiko zuten, eta Lurzoruaren Udal Ondarea bere helburu nagusirako bideratzeko eskatu du, hau da, lurzorua erosteko.

disipara todas las dudas que el proyecto y su puesta en marcha les genera y pide que el Patrimonio Municipal del Suelo se destine a su destino preferente que es la adquisicón de suelo.

Nerea Guijarrubiak aipatu duenez, EH Bilduk beti defendatu du Getxo Antzokiko eta Romoko Kultur Etxeko proiektuak ez direla beharrezkoak kudeatzen ari diren moduan. Diru kopuru handia erabiltzen ari da proiektu horietarako, haien kudeaketa ez da gardena izan eta gehiegizkoak iruditzen zaizkien gastuak daude, banku zehatz batzuena, esaterako. Gastua argitzea eta herritarrei jakinaraztea beharrezkoa dela uste du; beraz, mozioa babestuko dute.

Nerea Guijarrubia manifiesta que EH Bildu siempre ha defendido que los proyectos del Getxo Antzokia y el Kultur Etxea de Romo no son necesarios al menos tal y como se están gestionando. Se está dedicando una gran cantidad de dinero a estos proyectos, cuya gestión no ha sido transparente y existen gastos como el de determinados bancos que les parecen excesivos. Cree necesario que se clarifique el gasto y se informe a los vecinos, por lo que apoyarán la moción.

Eduardo Andradek gobernuko taldeari proposatu dio dena kontrolatuta badago, mozioak proposatutako auditoria onartzeko arazorik ez dela izango. % 53ko desfasea ez zaio arrazoizkoa iruditzen, eta hori guztia obra horren kontrol eta egikaritzeko langileen kostuak eta haiei lotuta sortutako kostuak gehitu gabe. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak proiektuaren idazlearen zerbitzu sarien partidari dagokiona zentsuratu zuela gogorarazi du.

Eduardo Andrade plantea al equipo de gobierno que si todo está controlado no habrá problemas para admitir la auditoría que plantea la moción. No ve razonable el desfase de un 53%, y eso sin haberse sumado los costos del personal destinado al control y ejecución de esa obra y costos conexos que han generado. Recuerda que el Tribunal Vasco de Cuentas censuró lo correspondiente a la partida de honorarios del redactor del proyecto.

Jose Arregik auditoria bat egiteko arazorik ez dutela erantzun du, baina ez du argi hura administrazio publiko bati aplika dakiokeenik. Getxo Antzokiari buruzko era guztietako informazioa dutela aipatu die, igorri zaiela jadanik, baina aztertzea eskatzen duela. Aurrekontua obra aurrekontu bat zela errepikatu du, eta hari urbanizazioko gastuak, zerbitzu sariak eta abar erantsi behar zaizkiola. Era guztietako informazioa eskura

Joseba Arregi replica que no tienen problemas para realizar una auditoría, pero duda que la misma pueda ser de aplicación a una administración pública. Les indica que tienen todo tipo de información sobre el Getxo Antzoki y que ya se les ha remitido pero que require que se estudie. Insiste en que el presupuesto era un presupuesto de obras al que hay que añadir los gastos de urbanización, honorarios, etc. Mantiene que hay acceso a todo tipo de

daitekeela dio, eta gaur egun auzokideek San Nikolasko plaza lehen baino gehiago erabiltzen dutela, urbanizatu ostean. GUK taldeari erantzun dio Getxon gazteentzako etxebizitza horiek non eraiki daitezkeen zehazten dutenean, beraiekin hitz egingo dutela.

información y que actualmente los vecinos utilizan más la plaza de San Nikolas, tras su urbanización, que anteriormente. A GUK le replica que cuando definan dónde se pueden edificar esas viviendas para jóvenes en Getxo hablarán con ellos.

Enrique Pradak aipatu duenez, toki bat Getxo Antzokia finantzatzeko saldutako lurrak izan zitezkeela. Etxebizitzak non eraiki behar diren adieraztea beraiei ez dagokiela aipatu du, halaber; eskatzen dutena da Lurzoruaren Udal Ondarea helburu nagusietarako erabil dadila, eta haien artean ez dagoela Getxo Antzokia. EAJ-PNVri gogorarazi dio Getxon ezarritako familia bakarreko etxebizitza ereduaren arduraduna dela, eta gehiegikeria ekonomikoa inprobisazioaren emaitza dela; hala, gobernuko taldeari eskatu dio herritarrei Getxo Antzokiko kontuak argi diezazkiela. Amaitzeko, EAJ-PNVri gogorarazi dio gobernura iritsi bezain laster Barakaldoko Udalean kanpo auditoria bat egin zuela.

Enrique Prada indica que un lugar podría ser los terrenos vendidos para financiar a Getxo Antzokia. Manifiesta también que no les correponde a ellos indicar dónde se van a construir las viviendas, lo que piden es que el Patrimonio Municipal del Suelo se dedique a los destinos preferentes, que entre ellos no está el Getxo Antzokia. Recuerda al PNV que es el responsable del modelo de vivienda unifamiliar implantado en Getxo e insiste que el desmadre económico es fruto de la improvisación y pide al equipo de gobierno que aclare a la ciudadanía las cuentas del Getxo Antzokia. Finaliza recordando al PNV que nada más llegar al gobierno en el Ayuntamiento de Barakaldo realizó una auditoría externa.

Nerea Guijarrubiak uste du irizpide politikoak izan behar direla inbertsiorako, eta zenbait inbertsio oso garestiak direla eta ezin direla onartu. Proiektuarekiko dituzten desadostasunak berretsi dituzte.

Nerea Guijarrubia cree que debe haber criterios políticos para la inversión y determinadas inversiones son muy costosas y no deben de admitirse. Se ratifican en sus discrepancias con el proyecto.

Enrique Pradak zehaztu du San Nikolas plazako bankuak garestiena aukeratzearen adibide argi bat dela, eta kontrolatu beharreko irizpide immoralak direla uste du.

Enrique Prada puntualiza que los bancos de la Plaza San Nikolas son un ejemplo de elegir lo más caro y le parecen unos criterios inmorales que se deben de controlar.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 14 boto (PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos) eta kontrako 11 (EAJ-PNV, PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos, 11 votos en contra, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Orain dela ez asko gobernu-taldeak dokumentu bat aurkeztu digu, non laburtuta koadro batean zehazten den orain arte Getxo Antzokiak kostatu digun dirua edo zenbat kostatuko duenaren aurreikuspena.

Recientemente el equipo de gobierno nos ha entregado un cuadro resumen del dinero que, por ahora, nos ha costado, o está previsto que cueste, el Getxo Antozkia.

Ematen du oraingoz 49,3 milioi euroko gastua dagoela.

Parece que los costes a día de hoy ascienden a 49,3millones de euros.

Getxoko Udaleko Udalbatzak 2010eko apirilaren 29an onetsi zuen bakarrik PNV eta PSE-EE taldeen aldeko botoekin Getxo Antzokia eraikitzeko oinarrizko proiektua. Zenbateko osoa 32.119.759,55 eurokoa da (BEZa barne) eta egikaritzea 5 fasetan zatitu zen.

El Pleno del Ayuntamiento de Getxo aprobó el 29 de Abril 2010, con los únicos votos favorables de PNV y PSE-EE el proyecto básico de construcción del Getxo Antzoki por un importe total de 32.119.759,55 € (Iva Incluido) y su división en 5 fases de ejecución.

Esan dugun bezala, oraingoz 49,3 milioi euro inbertitu dira.

Como decimos a día de hoy lo invertido alcanza los 49,3 millones de Euros.

Non dago gainontzeko dirua? Non daude gastatu diren gainontzeko 17.273.394,00 euroak?

¿Dónde está la diferencia? Donde están los 17.273.394,00 euros gastados de más.

Nola liteke osoko bilkuran onetsitako proiektua % 53,77 hazi izana?

¿Como se ha podido incrementar el proyecto aprobado por el pleno en un 53,77%?

Alferrikako gastuak dira, plazako bankuak bezala? Arkitekto aholkulariek aurreikusi zuten bezala faseetan egin den zatiketa eta azpizatiketa dira?

¿Se trata de gastos superfluos como los bancos de la plaza?, ¿se trata de la división y subdivisión en fases como pronosticaban los arquitectos consultados?

Uste dugu Getxoko herriak azalpen bat behar duela, eta uste dugu Udalbatza honi dagokiola azalpen hori eskatzea. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu enpresa aditu batek auditoretza bat egitea, egindako gastu guztiak berrikusi ditzala eta desbideratze horren arrazoiak zehaztu ditzala, eta

Creemos que el pueblo de Getxo necesita una explicación, y creemos que este pleno debe reclamarla, por ese motivo creemos necesaria la realización de una Auditoría, por una empresa especializada, que revise todos y cada uno de los gastos efectuados y determine las causas de esta desviación

era berean jarduketa horien legezkotasuna baloratu dezala.

y del mismo modo valore la legalidad de las mismas.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten du:

Es por lo que el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko Udalbatzak auditoretza bat kontratatzea ebaztea, idazki honen azalpenetan adierazitako galderei erantzuna emango diena.

PRIMERO.- El Pleno del Ayuntamiento Getxo acuerda la contratación de una Auditoria que responda a las preguntas planteadas en el cuerpo de este escrito.

BIGARRENA.- Mozio hau udaleko hedabideetan jakinaraztea.

SEGUNDO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Eduardo Andrade bilkuratik atera da.

Eduardo Andrade se ausenta de la sesión.

**227.- GUK, EH BILDU ETA PSE-EE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDALERRIA PARADISU FISKALIK GABEKO LURRALDE ALDARRIKATZEA.**

**227.- MOCIÓN CONJUNTA DE LOS GRUPOS MUNICIPALES GUK, EH BILDU Y PSE-EE S/DECLARACIÓN DEL MUNICIPIO TERRITORIO LIBRE DE PARAÍSOS FISCALES.**

Ibon Rodriguezek mozioa irakurri du.

Ibon Rodríguez da lectura a la moción.

Paula Amievak dio GUK taldeak Oxfam Intermonen proposamen hori izenpetu duela, desoreka ekonomikoaren aurka lan egiten duen erakunde bat dela, eta paradisu fiskalek zer kalte egiten duten adierazi du; hala, PPko ministro ohi baten kasua eta paradisu fiskalak ere aipatu ditu, baina aitortzen du PPk mozioaren aldeko botoa eman duela Gasteizen, EAJ-PNV gai txikiagoengatik abstenitu egin zen udalerrian. Udalak neurri zehatzak har ditzakeela uste du, proposatu direnak esaterako, eta mozioa babesteko eskatu dute.

Paula Amieva manifiesta que GUK ha suscrito esta propuesta de Oxfam Intermón que es una entidad que trabaja contra la desigualdad económica e indica el daño que generan los paraísos fiscales, referenciando también el caso de un exministro del PP y los paraísos fiscales, aunque reconoce que el PP ha votado a favor de la moción en Gasteiz, municipio en el que el PNV se abstuvo por cuestiones menores. Cree que desde el ayuntamiento se pueden tomar medidas concretas como las que se plantean y piden apoyo a la moción.

Koldo Iturbek adierazi duenez, gai honetan EAJ-PNVren irizpide politikoa

Koldo Iturbe manifiesta que en este tema va a trasladar el criterio político

helaraziko du; haren arabera, helburuarekin ados badaude ere, foro komun batean hartzea eskatzen du eta, beraz, aurtengo apirilean EAJ-PNVk, EH Bilduk eta PSE-EEk Eusko Legebiltzarrean hartutako erabakira lotzea dela arrazoizkoa uste du, irakurri egin duen erdibideko zuzenketa moduan aurkezten duena:

*"1. Getxoko Udalak eskatzen dio lruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Batzordeari bere lanen artean lehentasunez eraman dezala aurrera kontrol eta informazioko ekintza bat, egoitza fiskala edo negozio-unitatea Euskadiko Autonomía Erkidegoan dutela, paradisu fiskaletan aritzen diren pertsona fisikoen, enpresa eta sozietateen gainean.*

*2. Getxoko Udalak eskatzen dio lruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Batzordeari, ateratzen den informazioarekin, ekintzak has ditzala pertsona fisiko edo enpresa horien zerga-tributazioa EAEko ogasunetan egin dadin; eta, gardentasunaren izenean, persona edo enpresa horien zerrenda bat egin eta aldizka argitara dezala, lege-xedapenak eta erakundeen eskuduntzak aintzat hartuta.*

*3. Getxoko Udalak eskuduntza duten erakundeei eskatzen die enpresen erantzukizun soziala arautzean enpresek paradisu fiskaletan egoitzarik edo filialik ez izatearen ezinbestekotasuna adieraztea.*

*4. Getxoko Udalak euskal zerga-sisteman eskumena duten administrazioei eskatzen die indartu ditzatela zerga-ihesaren aurka ezarrita dauden mekanismoak, ekiditeko euskal enpresek, zerga-oinarriak gainbeheratu nahian, paradisu fiskaletan filialak jartzea.Helburua da horrelako iruzur-praktiketarako asmoak kentzea eta zigortzea, herritarren*

del PNV, según el cual si bien están de acuerdo con la finalidad, ésta requiere adoptarse en un foro común y, por tanto, estima que lo razonable es remitirse al acuerdo adoptado en el Parlamento Vasco en abril de este año por el PNV, EH Bildu y el PSE-EE, que presenta como enmienda transaccional a la que da lectura:

*"1. El Ayuntamiento de Getxo insta a la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal a que, entre sus trabajos, establezca de manera prioritaria una acción de control y de información sobre personas físicas, empresas y sociedades que, teniendo sede fiscal o unidad de negocio en la Comunidad Autónoma de Euskadi, actúan en paraísos fiscales.*

*2. El Ayuntamiento de Getxo insta a la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal a que, con la información que resulte, inicie acciones para que la tributación fiscal de dichas empresas o personas físicas se haga en las haciendas vascas y, en aras a la necesaria transparencia, elabore y publique un listado de las mismas de manera periódica, atendiendo a las disposiciones legales y a las competencias institucionales.*

*3. El Ayuntamiento de Getxo insta a las instituciones competentes a que en la regulación de la responsabilidad social de las empresas se establezca como absolutamente ineludible que las empresas no tengan sede o filial en los paraísos fiscales.*

*4. El Ayuntamiento de Getxo insta a las administraciones competentes del sistema tributario vasco a que refuercen los mecanismos antielusión ya establecidos para evitar que las empresas vascas pongan filiales en paraísos fiscales con el fin de erosionar bases imponibles, al objeto de reforzar la disuasión y represión de este tipo de prácticas fraudulentas que vulneran los*

*elkarbizitzarako printzipio oinarrizkoenak urratzen baitituzte.*

*5. Getxoko Udalak eskatzen dio Europar Batasunari defendatu dezala eta egin ditzala beharrezko pausoak, lortzeko, Batasunaren eremuan, politika fiskal progresibo, aurrerakoi,justu eta armonizatu bat, neurri anbizioso batzuk ere jasoko dituena iruzur eta ihes fiskalaren aurka borrokatzeko eta paradisu fiskalak desagerrarazteko."*

Ibon Rodriguezek erantzun du kontua bada puntu horiek mozioaren edukiari gehitzea ados izango zirela, baina aldatzea bada ez, mozioa Oxfam Intermonetik datorrelako eta, beraz, ezin dute onartu.

Koldo Iturbek aldatzeko dela argitu du.

Ibon Rodriguezek erantzun du ezin dutela onartu aurrez aipatutako eran aldatzea eta, beraz, ez dutela onartzen zeharkako proposamenarekin udalaren ardura ekiditu nahi delako.

Teresa Escalantek kapitalaren logikari erantzuten dioten herrialde fiskaletatik ondorioztatutako aurreiritziak aipatu ditu. Garrantzitsutzat jotzen du erakundeek, eta haien artean udalak, neurri zehatzekin jardutea, eta erdibidekoak proposatzen duen erakundeei egindako deialdia ez zaio nahikoa iruditzen. Europar Batasuna paradisu fiskalen aurka ez dela modu eraginkorrean jarduten ari esan du, haiek zehazteko eraginkorrak ez diren formulak erabiltzen baitira.

Ibon Rodriguezek galdetu du herritarrei nola eska daitekeen beraien zerga betebeharrak bete ditzatela, gero

*principios más esenciales de la convivencia ciudadana.*

*5. El Ayuntamiento de Getxo insta a la Unión Europea a defender y a dar los pasos necesarios para alcanzar, en el ámbito de la Unión, una política fiscal progresiva, progresista, justa y armonizada, que incluya medidas ambiciosas de lucha contra el fraude y la evasión fiscal y la desaparición de los paraísos fiscales."*

Ibon Rodríguez contesta que si de lo que se trata es adicionar esos puntos al contenido de la moción estarían de acuerdo, pero si se trata de sustituir no, ya que la moción viene de Oxfam Intermón y por tanto no lo pueden admitir.

Koldo Iturbe aclara que es para sustituir.

Ibon Rodríguez replica que no pueden admitir que se sustituya, tal y como han indicado anteriormente, por lo cual no la asumen porque supondría eliminar la responsabilidad municipal.

Teresa Escalante indica los perjuicios derivados de los países fiscales que responden a la lógica del capiltal. Cree importante que las instituciones, y entre ellas el ayuntamiento, actúen con medidas concretas y le parece insuficiente el llamamiento a instituciones que plantea la trasaccional. Manifiesta que la Unión Europea no está actuando de manera eficiente contra los paraísos fiscales ya que para la determinación de los mismos se utilizan fórmulas ineficaces.

Ibon Rodríguez pregunta cómo se le puede pedir a la ciudadanía que sea cumplidora con sus deberes tributarios

udalak paradisu fiskalean lan egiten duten enpresak kontratatzen baditu zergak ez ordaintzeko. Mozioak klausula sozial batzuk sartzeko udal jarduera bat proposatzen du, eta ez du ulertzen zergatik ez diren onartzen, udalean, gainera, klausula sozialak sartzeko lantalde bat dagoela kontuan hartuta. Proposatzen dena jarduera txiki bat dela aitortu du, baina egingarria dela, eta balio eredugarria izango zuela, gainera.

si luego el ayuntamiento contrata con empresas que operan en paraísos fiscales para evitar pagar impuestos. La moción plantea una actuación municipal de inclusión de unas cláusulas sociales y no entiende por qué no se asumen cuando además existe un grupo de trabajo en el ayuntamiento para la incorporación de cláusulas sociales. Reconoce que lo que se plantea es una pequeña actuación pero que es posible y que además tendría también un valor ejemplarizante.

Koldo Iturbek ez du uste gai hau herri bakoitzak modu isolatuan aztertu behar duenik, politika orokor bat izan behar da, hori autonomia erkidego mailan egiten ari dira, eta irizpide horrekin ere ados izan dira EH Bildu eta PSE-EE.

Koldo Iturbe no cree que deba tratarse este tema aisladamente por cada municipio sino que debe darse una política general que es lo que se está haciendo a nivel de la Comunidad Autónoma y con ese criterio también han estado de acuerdo EH Bildu y PSE-EE.

Paula Amievak onartu du EAJ-PNVk bere argudiaketan arrazoi zati bat izan dezakeela, eta horregatik beren proposamena mozioari eransten utziko zutela, baina ez aldatzen, bateragarriak direla uste baitu, gainera. Oxfam Intermonen proposamena kontuan ez hartzea ez dute arrazoizkoa ikusten, honako ondorio honetara heldu dena: beharrezkoa dela udal mailan lan egitea eta hala proposatzen ari zaizkie udal askotan talde politiko guztiei, mozioa ez onartzeko arrazoiak emanez eta alor horretan Getxon aitzindariak izanik.

Paula Amieva reconoce que el PNV pude tener parte de razón en su argumentación y por eso permitirían que su propuesta se añadiría a la moción pero no sustituirla porque estima además que son compatibles. No creen razonable omitir la propuesta de Oxfam Intermón, que ha llegado a la conclusión que es necesario trabajar a nivel de ayuntamiento y así lo están planteando en muchos municipios a todos los grupos políticos, dando razones para no asumir la moción y ser pioneros en Getxo en esta materia.

Ibon Rodriguezen iritziz, EAJ-PNV proposatzen ari dena aitzakia bat da, eta planteamendu horrekin gauza asko ez ziren egingo udala baino goragoko mailetan egitea zentzuzkoagoa izateagatik. Kontu horretan neurri fiskalak behar dira, baina baita beste arlo batzuetan ere, kontratazio publikoan adibidez, proposatzen

Ibon Rodríguez cree que lo que está planteando el PNV es una excusa y con ese planteamiento muchas cosas no se harían por ser más razonable que se hagan a niveles superiores al municipal. Hacen falta medidas fiscales en esta cuestion pero también en otros ámbitos como la contratación pública, que son las que se plantean y que el

direnak dira eta udalak onar ditzakeenak. Portugaleteko EAJ-PNVk mozioa babestu duela gogorarazi du eta Gasteizen abstenitu egin dela. Udalaren presioa beharrezkoa dela uste du, eta babesten ez bada, bide horretan ezin izango dela aurrera egin.

ayuntamiento puede asumir. Recuerda que el PNV de Portugalete ha apoyado la moción y en Gasteiz se ha abstenido. Cree que es necesaria la presión municipal y si no se apoya no se va a poder avanzar en este camino.

Koldo Iturbek aipatu du ere, EH Bilduk Eusko Legebiltzarrean jarrera bat duela eta Getxon beste bat. Azpimarratu du EAJ-PNV dela foru aldundietan neurri fiskalak hartu dituen bakarra eta Eusko Jaurlaritzan lan egiten ari dela.

Koldo Iturbe manifiesta también que EH Bildu tiene una postura en el Parlamento Vasco y otra en Getxo. Insiste en que el PNV es el único que ha adoptado medidas fiscales en las diputaciones forales y se está trabajando en el Gobierno Vasco.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 11 boto (GUK, EH Bildu, PSE-EE, Ciudadanos); kontrako 9 boto (EAJ-PNV) eta 4 abstentzio (PP).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, GUK, EH Bildu, PSE-EE; Ciudadanos; 9 votos en contra, PNV; 4 abstenciones, PP.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprueba la siguiente moción:

Paradisu fiskalek, munduko merkataritzaren erdia haietatik igarotzen den sistema opaku izaki, arazoak eragiten dituzte, tokian tokikoak eta orokorrak. Enpresa handiek paradisu fískalen bidez zergak saihestea diskriminazio ekonomikoa da paradisu fiskalak erabili ezin dituzten eta/edo erabili nahi ez dituzten enpresa txiki eta ertainentzat. Izan ere, ia %0 ordaintzen dute zergatan enpresa handiek paradisu fiskaletan. Paradisu fiskalen bidez zergak saihesteak diru-bilketa publikoa ere murrizten du, eta, beraz, zailagoa da zerbitzu sozialen gastua finantzatzea. Paradisu fiskalen opakutasunak erraztu egiten ditu kapital- zuritzeak, ustelkeria, krimen antolatua, mafiak eta talde terroristak finantzatzea, arma- trafikoa estaltzea eta giza eskubideen eta guztien ongiaren aurkako beste jarduera

Los paraísos fiscales, como sistemas opacos por los que pasan la mitad del comercio mundial, provocan disfunciones a nivel global y a nivel local. Con impuestos próximos al 0%, la elusión fiscal de las grandes empresas a través de los paraísos fiscales supone una discriminación económica para las pequeñas y medianas empresas que no pueden y/o no quieren hacer uso de ellos. La elusión fiscal a través de paraísos fiscales también disminuye la recaudación pública, por lo que es más difícil financiar el gasto de servicios sociales. Debido a su opacidad, los paraísos fiscales facilitan el blanqueo de capitales, la corrupción, la financiación del crimen organizado, de mafias y de grupos terroristas, el encubrimiento de tráfico de armas y otras actividades contrarias a los derechos humanos y al bien común.

batzuk.

Paradisu fiskalek eragiten dituzten ondorio larriez oharturik, nazioarteko zenbait eragile (G7, G20, ELGE, EB) neurriak hartzen ari dira zorrotzago kontrolatzeko paradisu horien erabilera, zergak saihesteko baliatzen baitituzte enpresa handiek. ELGEk, adíbídez, hau agindu du: enpresa multinazionalek lan egiten duten herrialde guztietan dituzten filialen zerrenda bat aurkez dezatela, bai etaherrialde horietako bakoitzeko zerga-ondainketari eta jarduera ekonomikoari buruzko datuak ere (Country-by_country reporting). Espainiako gobenuak bat egin du enpresek 20l6tik aurrera aurkeztu behar duten informazio-eskakizun horrekin, baina neurri horren irismena mugatu egin du, urtean 750 milioi euro baino gehiago fakturatzen duten enpresei bakarrik eskatzen baitzaie eta informazio hori publikoki zabaltzea eragotzi egin baitu.

Las graves consecuencias que conllevan los paraísos Jiscales ..h. an hecho que diferentes actores internacionales (G'7, G20, OeDE, UE) estén tomando medidas para obligar a un mayor control sobre la utilización de los paraísos fiscales por parte de grandes empresas para eludir o evadir impuestos. En este sentido, la oeDE ha establecido que las empresas multinacionales tengan la obligación de presentar un listado de todas las filiales en cada uno de los países en los que opera así como sus datos de actividad económica y pago de impuestos en cada uno de estos países (Country-by-country reporting). El Gobierno español ha incluido este requerimiento de información que las empresas, han de presentar a partir de 2016 que, sin embargo, limita el alcance de este tipo de medida, ya que sólo se requiere a empresas que facturen más de 750 millones de euros al año y se impide que sea información de divulgación pública.

Udalek murriztu egin dezakete paradisu fiskalen inpaktu orokorra, eta enpresen zerga-portaera jardunbide arduratsuetara bideratu, tokiko lehiaketa publikoak gehiago kontrolatuz, lehiaketok lehia libreko baldintzetan egin daitezen eta ez dumping fiskalekoetan, eta baliabide publikoen jasangarritasuna zainduz.

Los ayuntamientos pueden reducir el impacto global de los paraísos fiscales y tratar de modular el comportamiento, fiscal de las empresas hacia prácticas responsables a través de un mayor control de los concursos públicos locales, para que éstos se den en condiciones de libre competencia, y no de dumping fiscal, y velando por un sostenimiento de los recursos públicos.

Honenbestez, konpromiso hauek hartzen ditu Udalak:

Por estos motivos, el Ayuntamiento se compromete a:

1. Udalerria paradisu fiskalik gabeko lurralde aldarrikatzea, eta eman beharreko urratsak ematea ziurtatzeko lehiaketa publikoek zerga-portaera

1. Declarar el municipio territorio libre de paraísos fiscales, comprometiéndose a dar los pasos necesarios para asegurar que los concursos públicos favorezcan a

arduratsuak dituzten enpresen alde egingo dutela, zergak saihesteko paradisu fiskalak erabiltzen dituzten enpresen kalterako.

2. Mekanismoak aztertzea, detektatzea eta aktibatzea, zaila izan dadin zerbitzu publikoak emateko egoitza soziala paradisu fiskaletan duten enpresa pribatuak edo paradisu fiskaletan helbideratutako sare industrial baten parte diren sozietateak kontratatzea.

3. Gardentasun-neurri hauek betetzea:

a. Mozio honen konpromisoa azaltzea udalerriko herritarrei, Oxfam Intermoni, udaleko talde parlamentarioei, autonomia-erkidegoko ekonomia-batzordeari eta autonomía-erkidegoko eta Espainiako gobenuei eta Ogasun Ministerioari;

b. Beste udalerri batzuei eta herritarrei jakinaraztea bereri zerga-erantzukizunaren arabera puntu positiboak jaso dituzten edo jaso ez dituzten enpresei buruzko erabakien informazioa.

4. Konpromiso horiek gauzatzeko, behar diren lege-xedapenak bideratu behar dira, gehienez ere sei hilabeteko epean, mozio hau onartzen den egunetik kontatzen hasita.

las empresas que tienen conductas fiscales responsables, en detrimento de las empresas que utilizan. los paraísos fiscales para evadir o eludir impuestos.

2. Estudiar, detectar y activar los mecanismos necesarios para dificultar la contratación de empresas privadas para .prestar servicios públicos que tengan su sede social en paraísos fiscales o sociedades que.formen parte de la matriz industrial domiciliada en paraísos fiscales.

3. Comprometerse a tomar las medidas de transparencia siguientes:

a. Hacer público el compromiso de esta moción a la ciudadanía del municipio.a Oxfam Intermón, a los grupos parlamentarios municipales y a la comisión de Economía de la Comunidad Autónoma, a los gobiernos de la Comunidad Autónoma y de España, y al Ministerio de Hacienda;

b. Compartir con otros municipios y con la ciudadanía la información relativa a las decisiones sobre las empresas que han recibido puntos positivos y las que no, en función de su responsabilidad fiscal.

4. Estos compromisos se han de traducir en la tramitación de las disposiciones legales necesarias para su articulación en el plazo máximo de seis meses desde la aprobación de la presente moción.

**228.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GURE HERRIETAKO MERKATARITZAREN ETA BIZITZAREN DEFENTSAN.**

**228.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/DEFENSA DEL COMERCIO Y DE LA VIDA EN NUESTRAS LOCALIDADES.**

Nerea Guijarrubia andreak ondorengo mozioa irakurri du:

Alboko udalerrian, Berangon, Getxon eta Uribe Kosta osoan eragina izango duen merkatal gunea eraikiko dute. Tamalez, gure inguruan dauden merkatal gune erraldoiak ez dira gutxi. Horra hor Artea edo azken urteetan Leioan zabaldu diren supermerkatu handiak.

Merkatal guneen eredua jasangarritasunaren kontrako eredua da. Saltoki hauek autoaren erabilera ezinbesteko bihurtzen dute eta horrek eragin handia izaten du trafiko eta azpiegituretan.

Baina aurreko gutxi balitz, gure herrietako bizitza eta gure tokiko ekonomia kaltetuak izango dira halabeharrez. Merkatal guneen ekonomi eredua enpresa handien eredua da, hots, merkatari txikia itotzea helburu duena. Horren ondoioz ixten dira dendak; horren ondorioz gure auzoetan gero eta lonja huts gehiago daude; horren ondorioz tristuraz janzten dira gure kaleak.

Lan-postuak sortuko dituztela esango digute, baina ez digute azalduko zer nolako baldintzak izango dituzten eta zer nolako lanaldi luzeak egin beharko diren soldata duin bat lortzeko ezintasunean segitzeko. Baina ez hori bakarrik, merkatal gunearen aldekoek ez digute esango lanpostu prekario horiek sortzeko zenbat lanpostu duin suntsituko dituzten.

Nerea Guijarrubia da lectura a la siguiente moción:

En el municipio colindante, Berango, van a construir un centro comercial que tendrá repercusión en Getxo, así como en toda Uribe Kosta. Desgraciadamente, no son pocos los centros comerciales que tenemos a nuestro alrededor. Entre ellos, cabe mencionar Artea o los grandes supermercados que se han abierto en Leioa en los últimos años.

El modelo de los centros comerciales es contrario al modelo de la sostenibilidad. Ese tipo de establecimientos hacen que sea imprescindible utilizar el coche, lo que tiene una gran influencia tanto en el tráfico como en las infraestructuras.

Por si eso fuera poco, la vida de nuestros pueblos y la economía local serán perjudicados inevitablemente. El modelo económico de los centros comerciales corresponde al modelo de empresas grandes; esto es, al modelo que tiene por objeto ahogar al pequeño comerciante. Por consiguiente, se cierran tiendas y, a consecuencia de ello, cada vez hay más lonjas vacías en nuestros barrios; esa es la razón por la que nuestras calles se llenan de tristeza.

Nos dirán que crearán puestos de trabajo, pero no nos explicarán el tipo de condiciones que tendrán ni cuán largas será las jornadas laborales a realizar para continuar con la imposibilidad de tener un sueldo digno. No se trata solo de eso, sino que las personas que se muestran a favor de los centros comerciales no nos dirán cuántos puestos de trabajo se destruirán a fin de crear los puestos de trabajo precarios.

Hori gutxi blitz, argi eta garbi adierazi behar dugu horrelako proiektuek sortzen duten aisialdia kontsumoaren inguruan eraikitako eredua dela, kontsumoa bihurtzen da denbora librearen erdigunea; hala, herritarren arteko harremantzea, naturarekiko erlazioa edota elkarlana bezalako baloreak bazter batean gelditzen dira.

Por si eso fuera poco, tenemos que decir alto y claro que el ocio que crean ese tipo de proyectos constituye un modelo que se forma en torno al consumo; el consumo se convierte en el punto central del tiempo libre. De ese modo, se dejan de lado valores tales como el hecho de relacionarse con ciudadanos, la colaboración o la relación con la naturaleza.

Berangon eraikiko dute merkatal gunea, baina Berangoko Udalaren erabakiak Getxo eta Uribe Kostako tokiko ekonomi osoan izango du eragin kaltegarria. Legez Berangoko Udalak makroproiektu hau sustatzeko eskumena duen arren, ezin dugu ixilik egon, bere erabakiek ondorio lazgarriak izango dituztelako gugan.

El centro comercial lo van a construir en Berango, pero las decisiones que tome el Ayuntamiento de Berango tendrán repercusiones perjudiciales en la economía local de Getxo y Uribe Kosta. A pesar de que legalmente el Ayuntamiento de Berango tenga la competencia de promover dicho macroproyecto, no nos podemos quedar callados puesto que dichas decisiones nos ocasionarán consecuencias terribles.

Aurreko guztiagatik Getxoko osoko bilkurak honako akordioa bere egiten du:

Por todo lo anterior, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo adopta el siguiente acuerdo:

1.- Getxoko Udalak Berangon eraikiko den merkatal gune erraldoia ekonomia jasangarriaren, gure herriko bizitzaren eta Uribe Kostako garapenaren kontrako proiektua dela adierazi nahi du.

1.- El Ayuntamiento de Getxo quiere manifestar que el centro comercial gigante que se va a construir en Berango constituye un proyecto contrario a la economía sostenible, a nuestra vida en el pueblo y al desarrollo de Uribe Kosta.

2.- Getxoko Alkateak mozio honen berri emango die Uribe Kostako udalerri guztiei, mozioa eztabaidatzeko gonbitea eginez.

2.- El alcalde de Getxo comunicará esta moción a todos los municipios de Uribe Kosta y les invitará a discutirla.

3.- Gotxoko Alkateak Berangoko alkateari zuzenduko zaio proiektua bertan behera utz dezala eskatuz eta Uribe Kostako garapenaren inguruko hausnarketa foroa eratzeko proposatuz.

3.- El alcalde de Getxo se dirigirá al alcalde de Berango para solicitar que anule el proyecto, así como para proponer que se cree un foro de reflexión sobre el desarrollo de Uribe

Kosta.

4.- Gertxoko Alkatea Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzari zuzenduko zaie merkatal gune proiektu erraldoiak baztertu ditzaten.

4.- El alcalde de Getxo se dirigirá a la Diputación Foral de Bizkaia y al Gobierno Vasco con objeto de que abandonen los proyectos gigantes relativos a los centros comerciales.

Inazio Uriartek aipatu duenez, Berangoko Udalaren erabakiak errespetatu behar dira bere eskumenen esparruan, eta nahi badu Berangoko Udalak eraikuntza eragotzi dezakeela. Gogora ekarri du, EH Bildu Berangon, ezarpen hori ahalbidetzen zuen hirigintzako ebazpen horri dagokionez, abstenitu egin zela. Getxon antzeko ezarpen baterako aukerarik ez dagoela esan du eta gobernuko taldeak babesteko eta gehitzeko gakoetan lan egiten duela; ondoren Getxoko merkataritzari babesa emateko ildo nagusien berri eman du.

Inazio Uriarte indica que hay que respetar las decisiones del Ayuntamiento de Berango en su ámbito de competencias y que si desea puede el Ayuntamiento de Berango impedir la construcción. Recuerda que EH Bildu en Berango en cuanto a una resolución urbanística que posibilitaba esta implantación se abstuvo. Manifiesta que en Getxo no existe la posibilidad de una implantación similar y que el equipo de gobierno trabaja en clave de apoyar y sumar, dando cuenta a continuación de las líneas generales de apoyo al comercio local en Getxo.

Enrique Pradak dio GUK taldeak merkataritza gune handien alde baino bertako merkataritza sustatzearen aldeko apustua egiten duela. Eusko Jaurlaritzan erantzukizuna duten alderdiak daudela iritzi du, jarduera ekonomikoaren Sektoreko Lurralde Plana onartu zutena, eta Berangok bete ez dituen parametro batzuk finkatu zituen. Araudia ustel atera dela ere onartu du Europako araudietara ez baita egokitu, horrek egoera aldatu duela eta gaur egun ez dagoela mugarik. Alor horiek kudeatzen dituen EAJ-PNVk bere araudia eguneratuz jardun ez izana kritikatu du tokiko merkataritzako defendatzeko.

Enrique Prada indica que GUK apuesta por potenciar el comercio local frente a las grandes superficies. Opina que hay partidos que tienen responsabilidad en el Gobierno Vasco y que aprobaron el PTS de la actividad económica que fijó unos parámetros a los que Berango se ha ajustado. También reconoce que la normativa ha resultado un fiasco ya que no se ha actualizado a las normativas europeas, lo cual ha alterado la situación no existiendo actualmente limitaciones. Critica que el PNV, que gestiona dichos ámbitos, no haya actuado actualizando su normativa para defender el comercio local.

Iñaki Gamerok adierazi duenez, Getxoko merkataritzari laguntzeko politikaz hitz egitea gustatzen zaie, haren egoerak asko kezkatzen baitute. Getxoko merkataritza gaixo dagoela

Iñaki Gamero manifiesta que les gusta hablar de políticas de ayuda al comercio de Getxo ya que su situación es algo que les preocupa mucho. Creen que el comercio en Getxo está enfermo

uste dute gobernuko taldeak ildo horretan jarduera asko egin arren, eta hori behar bezalako diagnosia egin ez delako gertatu dela. Establezimendu asko irekitzen dira baina gehiago ixten, eta kalitatea eskasten ari da. Getxoko merkataritzaren jabekuntza beharrezkoa da eta gobernuko taldeko proposamenak babestuko dituzte, baina gogora ekarri du gobernuko taldeak EH Bildurekin PPren proposamenak baztertu dituela merkataritzarako zerga murrizketei dagokienez. Mozioan abstenitu egingo dira, merkataritza babestearen aldeko ezeren kontra ez baitute egingo.

pese a todas las actuaciones del equipo de gobierno y opina que ello se debe a que no se ha diagnosticado correctamente. Se dan muchas aperturas de establecimientos pero más cierres y la calidad se está degradando. Es necesario empoderar al comercio de Getxo y van a apoyar las propuestas del equipo de gobierno, pero recuerda que el equipo de gobierno con EH Bildu ha rechazado propuestas del PP de rebajas tributarias al comercio. Se van a abstener en la moción por que no se oponen a lo que sea apoyar al comercio.

Inazio Uriartek aipatu duenez, merkataritza babesteari buruzko eztabaidarik  ez du izango taldeekin, baina PPri esan dio Getxoko merkataritza ez dagoela gaixorik, egiturazko krisi ekonomiko batek kaltetu duela baizik, eta horrek herritarrek erabil dezaketen errenta murriztu duela eta, beraz, kontsumorako errentaren proportzioa, egiturazko kostuak areagotzeaz gain. Amaitzeko, Getxoko merkataritzaren kalitatea ez dela eskasten ari adierazi du.

Inazio Uriarte indica que no va a debatir con los grupos sobre el apoyo al comercio pero indica al PP que el comercio en Getxo no está enfermo sino afectado por una crisis económica estructural que está reduciendo la renta disponible de la ciudadanía y, por tanto, la proporción de la renta destinada al consumo, además de que los costes estructurales se han incrementado. Finaliza indicando que en su opinión la calidad del comercio de Getxo no se está degradando.

Nerea Guijarrubiak erantzun du EH Bilduk jakin badakiela, Berangon merkataritza gune bat ezartzeri lotuta proposatzen denari dagokionez, ez dela Getxoko Udalaren eskumena, baina erabaki politiko bat izatea interesgarria iruditzen zaiola. Bitxia egiten zaio EAJ-PNVk gobernatzen duen Getxoko Udalak kontrako merkataritza politika bat aplikatzea, Getxoko merkataritzari eragingo diona. Alkateak eta udalak Getxoko merkataritza babestu behar dutela uste du eta, horregatik, jarrera politiko bat eskatu dute. Gogora ekarri du, udaleko eta Eusko Jaurlaritzako

Nerea Guijarrubia replica que EH Bildu es conocedor, en lo que se plantea en relación a la implantación del centro comercial en Berango, que no es competencia del Ayuntamiento de Getxo pero le parece interesante que exista un pronunciamiento político. Le parece curioso que el Ayuntamiento de Getxo, gobernado por el PNV, lleve una política comercial contraria que va a afectar al comercio de Getxo. Cree que el Alcalde y el ayuntamiento deben de apoyar al comercio de Getxo y por eso piden un posicionamiento político. Recuerda que el pacto de gobierno

EAJ-PNV eta PSE-EE gobernuko itunak tokiko merkataritzarako babesa jasotzen duela eta merkataritza gune handiak haren aurkakoak direla; beraz, publizitate kanpainak edo saltokietarako diru laguntzak ez dira nahikoak merkataritza gune handi horiek ezartzea ekiditen ez badira. PPri esan diote Berangoko instalazio hori babestu dutela eta EH Bildu abstenitu egin zela hirigintzako zehaztapenetan, ez baitzegoen behar adina informaziorik, eta une hartan merkataritza gune bat jartzea ez zela aurreikusten. Amaitzeko, merkataritza gune hori Berangon jartzeak Getxoko merkataritzan ondorio txarrak izango dituela azpimarratu du.

PNV, PSE-EE en el ayuntamiento y el Gobierno Vasco recoge el apoyo al comercio local y los grandes centros comerciales son contrarios al comercio local, por lo que no son suficientes las campañas publicitarias o subvenciones a comercios si no se evitan la implantación de grandes centros comerciales. Indican al PP que han apoyado esa instalación en Berango y EH Bildu se abstuvo en las determinaciones urbanísticas ya que no había suficiente información y en aquel momento no se preveía la instalación de un centro comercial. Finaliza insistiendo que la implantación de ese centro comercial en Berango va a tener efectos negativos en el comercio de Getxo.

Santiago Sainzek hitza hartu du Ciudadanosek merkatariak, autonomoak eta enpresa txikiak babesten dituela adierazteko, eta estatu mailan autonomoei buruzko lege bat izapidetzen ari dela dio. Getxoko merkataritza babesten dute, eta aberastasunaren eta lanpostuen sortzaile direla uste dute. Ez du ulertzen alkateari eskatzea beste alkate bati esan diezaiola bere udalerrian zer egin behar duen. Uribe Kosta mailan egindako gogoeta batekin ados daude, eta ez dute mozioa babestuko.

Santiago Sainz interviene para indicar que Ciudadanos apoya a los comerciantes, autónomos y pequeñas empresas indicando que a nivel estatal se está tramitando una ley sobre autónomos. Apoyan al comercio de Getxo, al que consideran generador de riqueza y de puestos de trabajo. No entiende que se pida al Alcalde que indique a otro alcalde lo que debe hacer en su municipo. Estan de acuerdo en una reflexión a nivel de Uribe Kosta y no van a apoyar la moción.

Inazio Uriartek aipatu du, gainera, merkataritzari ez ezik, krisiak beste sektore ekonomiko batzuei ere eragin diela. EH Bilduri esan dio datu bat baino ez duela eman. Ideien munduan EH Bilduk gauzak argi dituela uste du, baina neurri zehatzetara pasatzean zalantzak izaten dituela, eta neurri horietan frogatu behar dela, hain zuzen, bertako merkataritza babesten dela era irmo batean.

Inazio Uriarte indica que además de al comercio la crisis también ha afectado a otros sectores económicos. A EH Bildu le manifiesta que sólo ha aportado un dato. Cree que en el mundo de las ideas EH Bildu tiene las cosas claras pero al pasar a medidas concretas les entran las dudas cuando es en esas medidas cuando hay que demostrar que se apoya de manera decidida al comercio local.

Enrique Pradaren aburuz, Berangoko merkataritza gunearen inpaktua tokikoaz gaindi dago, eta ez du ulertzen alderdiek udalerrian arabera jarrera ezberdinak izatea ondorioek, gainera, udal mugak gainditzen dituztela ikusita. Lurralde antolamendua ordenan jartzeko dagoen atzerapena kritikatu du.

Enrique Prada cree que el impacto del centro comercial de Berango excede de lo local y no entiende que los partidos tengan posiciones diferentes según municipios cuando los efectos además exceden de los límites municipales. Critica el retraso en poner en orden la ordenación territorial.

Nerea Guijarrubiak dioenez, EH Bilduk ez du merkataritza gune handirik nahi udalerri bakar batean ere; beraz, ez dago kontraesanik, baina garrantzitsua iruditzen zaie bertako merkataritza nola babesten den definitzea. Kontraesan handienak EAJ-PNVk dituela uste du, Berangon merkataritza gune handiak babesten baitituzte eta Getxon bertako merkataritzaren alde egiten dute lan.

Nerea Guijarrubia manifiesta que EH Bildu no quiere grandes superficies en ningún municipio por lo que no hay contradicciones pero creen que es importante definir cómo se apoya al comercio local. Cree que las mayores contradicciones se dan en el PNV ya que en Berango apoyan las grandes superficies y en Getxo trabajan a favor del comercio local.

Mozioa bozkatu ostean, baztertu egin da aldeko 8 botorekin (GUK, EH Bildu); kontrako 11rekin (EAJ-PNV, PSE-EE) eta 5 abstentziorekin (PP, Ciudadanos).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 8 votos a GUK, EH Bildu; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE; 5 abstenciones, PP, Ciudadanos.

**229.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ROMOKO AUZOKIDEEN SUMARIOA GAITZETSI.**

**229.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/REPULSA DEL SUMARIO INSTRUIDO A VECINOS DE ROMO.**

Oier Iturralde jaunak ondorengo mozioa irakurri du:

Oier Iturralde da lectura a la siguiente moción:

Datorren abenduaren 13an, Romoko auzokideak diren Pablo Pérez eta Jon Arako Gasteizko herri harresian parte hartzeagatik epaituak izango dira. Fiskalak eskaturiko 12 eta 9 hilabeteko zigor eskaerari aurre egin beharko diote hurrenez hurren Jonek eta Pablok. Bestalde, Oscar Sánchez, Itzubaltzetako bizilaguna, epaiketaren zain dago euskal preso eta iheslarien eskubideen

El próximo 13 de diciembre, los vecinos de Romo Pablo Pérez y Jon Arako serán juzgados por participar en el muro popular de Gasteiz. Jon y Pablo deberán hacer frente a peticiones de 12 y 9 meses de prisión respectivamente. Por otra parte, Oscar Sánchez, vecino de Romo, se encuentra a espera de juicio por el trabajo realizado en favor de los derechos de los presos y

alde burututako lanagatik.

Urte luzeak dira euskal herritarrok gatazka eta sufrimendua bizi dugunetik. Azken urteotan emandako urratsek (ETAk behin betiko bere ekinbide armatuari amaiera eman zionetik batik bat) konfrontazioa eremu politiko hutsera mugatuko duen etorkizunera eraman gaitzan nahi dugu.

Abiatutako bide honetan, eragile politiko, sozial zein norbanakoek emandako urratsek ekarri gaituzte egoera honetara. Eta etorkizuna eraikitzen jarraitzeko, ezinbestekoa izango da denok erantzukizunez jokatzen jarraitzea. Bide horretan, agerikoa da lekuz kanpo daudela konponbidea eten edo oztopatzeko asmoz eraikitzen dituzten traba berriak eta Itzubaltzetako hiru auzokide hauen kontrako prozesu judiziala horietako bat da.

Epaiketa hauek, frustrazio iturri dira. Herritarrok ilusioz gaude ordea, eta bakean eta justizian oinarrituko den etorkizuna eraiki nahi dugu. Errespetua eta aitorpena oinarri izango dituena, eta eskubide zibil eta politiko guztiak onartuak izango dituena.

Justizia, garai berri baterako transizio ikuspegitik aplikatzen hasi behar da.

Horregatik guztiagatik, ondoko proposamena luzatzen diogu Osoko Bilkurari onartua izan dadin:

1.- Getxoko Udalak Itzubaltzetako auzokide hauen kontrako sumarioak gaitzesten ditu eta inoiz hasi behar ez ziren prozesu hauek berehala ixtea eta auziperatu guztien absoluzioa

refugiados vascos.

Los ciudadanos vascos llevamos muchos años sufriendo este conflicto y el dolor que acarrea. Deseamos que los pasos dados en los últimos años (especialmente desde que ETA abandonase de forma definitiva su actividad armada) nos lleven a un futuro en el que la confrontación se limite al espacio político.

En este camino recién emprendido, son los pasos dados por los actores políticos, sociales e individuales los que nos han traído a esta situación. Y para continuar construyendo el futuro, será imprescindible que todos continuemos actuando con responsabilidad. En este camino, es evidente que los nuevos obstáculos que están construyendo para parar o entorpecer la solución están fuera de lugar, y el proceso judicial contra estos tres vecinos de Romo es una muestra de ello.

Estos juicios nacen de la frustración. Sin embargo, la ciudadanía esta ilusionada y deseamos construir un futuro basado en la paz y la justicia. Un futuro basado en el respeto y el reconocimiento, en el cual se respetarán todos los derechos civiles y políticos.

La justicia debe comenzar a aplicarse desde el punto de vista de la transición hacia un nuevo tiempo.

Por todo ello, realizamos la siguiente propuesta al Pleno del Ayuntamiento, para su aprobación:

1.- El Ayuntamiento de Getxo rechaza los sumarios abiertos contra estos vecinos de Romo y exige que estos procesos que nunca debieron iniciarse se cierren de inmediato y se tome la

ezartzeko erabaki juridikoa hartzea exijitzen du.

Oier Iturraldek aipatu duenez, aurkezten duten mozioa beste kasu batzuetan aurrez aurkeztutakoen antzekoa da. Hau Itzubaltzetaren "Libre" kolektiboak proposatutakoa izan da, EH Bilduk bere gain hartzen duena.

Koldo Iturbek adierazi du EAJ-PNVren jarrera sumario askotan argia izan dela. Egungo egoera ikusirik, prozesu horiek atzerapen bat dira, eta epaiketa horiek oinarri juridikorik ez dutela uste dute, eta haiek artxibatzea bidezkoa dela, kohesio soziala lortzen laguntzeaz gain. Kasu zehatz honetan, desberdina da akusazioak Ertzaintzaren jarduera batetik ondorioztatzen baitira, polizia judizial moduan pertsona zehatz batzuk atxilotzeko epaitegietako agindu bat bete zuena; lan horretan desordena publikoak eta erasoak sortu ziren, eta haietan guztietan mozioan aipatutako pertsonek parte hartu zuten. Pertsona horiek Ertzaintza eta EAJ-PNV kriminalizatzen ziren ekintzetan parte hartzen zutela gogorarazi du, halaber. Ertzaintza babestu du, eta esan du polizia integrala izanik ezin dituela ebazpen judizial batzuk bete eta beste batzuk ez irizpide subjektibo batzuen arabera.

Paula Amievak dioenez, Gasteizen gertatu zenari buruzko ezagutza zuzena dute, proposamena bakezalea zen eta, beraz, ekintza terrorista moduan adierazteak ez du askorik laguntzen. Mozioa, hizkuntzari dagokionez, aurrerapen bat da eta, hortaz, babestu egingo dute.

Susana de Cosek gogora ekarri du 2015eko maiatzean atxilo hartu

decisión jurídica de absolver a todas las personas enjuiciadas.

Oier Iturralde indica que la moción que presentan es similar a otras presentadas anteriormente en otros supuestos. Esta ha sido a propuesta del colectivo "Libre"de Itzubaltzeta, que EH Bildu asume.

Koldo Iturbe manifiesta que la posición del PNV en multitud de sumarios ha sido clara. Ante la actual situación estos procesos son un retroceso y creen que esos juicios no tienen base jurídica y su archivo es de justicia además de ayudar a la cohesión social. En este caso concreto, es diferente ya que las acusaciones se derivan a raíz de una actuación de la Ertzaintza que como policía judicial cumplió una orden de los juzgados de detener a determinadas personas y en su labor se generaron desórdenes públicos y agresiones en las que participaron las personas citadas en la moción. Recuerda también que esas personas participaban en actos en los que se criminalizaba a la Ertzaintza y al PNV. Defiende a la Ertzaintza que como policía integral no puede cumplir unas resoluciones judiciales y dejar de cumplir otras en función de criterios subjetivos.

Paula Amieva manifiesta que tienen conocimiento directo de lo que ocurrió en Gasteiz y se trataba de una propuesta pacífica por lo que plantearla como actos terroristas no favorece en absoluto. La moción en su lenguaje supone un avance por lo que la apoyarán.

Susana de Cos recuerda que los detenidos lo fueron en mayo de 2015

zituztela desordena publiko gisa kalifikatutako ekintzetan parte hartzeagatik “Libre” plataformaren ekitaldi baten ostean. Aipatutako pertsonetako bat “Herrira" plataformarako lan egiten ari da modu jarraituan, amnistiaren aldeko lehengo batzordeak ordezten dituena, ETA talde armatuaren irizpideak betez jardun dutela eta presoekiko tratua diskriminatzen duela talde armatuarekin duen harremanaren arabera. ETA desegiteko eskatu du eta armak entrega ditzala, eta gatazka eztabaida politikora muga dadila, baina aipatu du erakundeetara jotzen dutela justiziak harrapatzen dituztenean, nahiz eta beraiek bezala pentsatzen ez duten guztiak ez dituzten errespetatzen.

por participar en actos calificados como desórdenes púbicos tras un acto de la plataforma “Libre”. Una de las personas que se cita está trabajando de manera continua para la plataforma “Herrira” que sustituye a los antiguos comités pro-aministia, que han estado actuando obedeciendo los criterios de la banda terrorista ETA y que discrimina el trato con los presos en función de su relación con la banda. Pide la disolución de ETA y la entrega de las armas y que la confrontación se limite al debate político, pero indica que acuden a las instituciones cuando la justicia les alcanza pese a que no respetan a los que piensan como ellos.

Oier Iturraldek erantzun du EAJ-PNVko bozeramaileak esandakoarekin ez dela harritzen, baina bai Ertzaintzaren indarkeriazko jokabide bat txalotzearekin. PPri esan dio mendeku politikoa alde batera utzi behar duela eta garai berri batzuetan kide modura espero dituztela, aurrera egin behar den garai batzuetan, eta bertan EH Bilduk lan egiten jarraituko duela beraiek sartzen ez badira ere.

Oier Iturralde replica que no le sorprende lo manifestado por el portavoz del PNV pero sí que aplauda una actuación violenta de la Ertzaintza. Al PP le indica que tiene que olvidar la venganza política y que les esperan como compañeros en unos nuevos tiempos en los que hay que avanzar y en los que EH Bildu no va a dejar de trabajar aunque no se incorporen.

Susana de Cosek erantzun du ez dagoela inolako mendeku politikorik, eta beharrezkoa dela gizarteak eskatzen diena aitortzea, ETA desegitea.

Susana de Cos responde que no hay ningún tipo de venganza política y que es necesario que reconozcan lo que la sociedad les pide y la disolución de ETA.

Mozioa bozkatu ostean, baztertu egin da aldeko 8 botorekin (GUK, EH Bildu) eta kontrako 16rekin (EAJ-PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 8 votos a favor, GUK, EH Bildu; 16 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos.

**230.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA:**

**230.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU**

**INDABADA JAI EGUNA ALGORTAKO PLAZAN OSPATZEA.**

Nerea Guijarrubia andreak ondorengo mozioa irakurri du:

Aski ezaguna da herri honetan urriaren bukaeran, azaroaren hasieran, antolazen den indaba jana, Indabada bezala ezaguna. Duela 17 urte, gaztetxe desalojo sistematikoen, eta gazte-proiektuen inguruan Udalaren jarrera erasokorraren aurrean, gazteek euren bideari ekin zioten Txiki Otaegiko plaza okupatu, eta aldarrikapenez jantzitako jai giroan euren proiektu zein eredua gauzatzeko.

Bide horretan, indabadaren hastapenetan nagusi izan zen "Kalea herriarena da" leloa; kalearen erabileraren burokratizazioa salatu, eta herriko espazioen erabilpen herrikoia, erraza eta librea erreibindikatzeko, besteak beste. Halere, egunean zehar aldarri hori zabaltzeaz gain, Indabadak urtez urte herrian, plazan, giro ezinhobea sortu du; besteak beste, kuadrilen zein norbanakoen arteko harreman natural eta gertukoak eraiki; autogestioa oinarri, gazteek berauek aisialdia eskaintza sortu; azken finean, gazteek euren jai-eredu propioa sortu,. Gazte botereaz eta herri boterearen bidez, establishment oso bati aurre egin, eta hura kolokan jartzera heldu da Indabada eguna.

Urteak igaro dira, 17 urte, hain zuzen, eta ordutik Indabadak bere jatorrizko hainbat eta hainbat ezaugarri gorde ditu; aldarrikapenak bere aiurriaren

**S/CELEBRACIÓN EN LA PLAZA DE ALGORTA DE FESTEJO CON ALUBIADA.**

Nerea Guijarrubia da lectura a la siguiente moción:

Es de sobra conocida la alubiada que se organiza cada año a finales de octubre, principios de noviembre, popularmente conocida como Indabada. Hace 17 años, ante el desalojo sistemático de los gaztetxes y la actitud agresiva del Ayuntamiento contra los proyectos de los jóvenes, éstos empezaron a recorrer su propio camino, y así llevaron a cabo su propio proyecto y modelo, ocupando la plaza Txiki Otaegi y llenándola de reivindicaciones en un ambiente festivo.

En ese sentido, en los comienzos de la Indabada el lema predominante era "Kalea herriarena da", es decir, "La calle es del pueblo". Así, se denunciaba la burocratización del uso de la calle y se reivindicaba el uso popular, sencillo y libre de la calle, entre otras cosas. Y así, aparte de difundir esa reivindicación durante el día año tras año, la Indabada crea un ambiente inmejorable en el pueblo y en la plaza; establece relaciones naturales entre cuadrillas y personas, y tomando como base la autogestión, los jóvenes construyen su propia oferta de ocio, a fin de cuentas, crean su propio modelo festivo. A través del poder juvenil y popular, el día de la Indabada ha conseguido hacer frente a todo un establishment, haciendo que éste se tambalee.

Ya han pasado unos años, 17 concretamente, y desde entonces la Indabada ha conservado muchas de sus características, en tanto que la

parte izaten jarraitu duen arren; nagusiki, Indabada gazte andana jai-giro ederrean batzeko eguna izan da, gazteen artean harremandu eta ondo pasatzea izan da helburu, inoiz ere, zirikateari utzi gabe, eta noski, kale espazioaren erabilera aldarrikatzen utzi barik. Azken urteetan bezalaxe, Indabada asanblada irekien bidez antolatu da; edozeinek aukera izan du hurbildu eta ekarpenak egiteko, ateak beti irekita izan baititugu nahi beste proposamen entzuteko. Horrez gain, aipatu behar dugu hamaika tabernaren babesa eta laguntza izan dugula urte hauetan guztietan eguna prestatzeko. Urtero bezala, aurten ere plazaren erabilera erraza aldarrikatzearekin batera, plazaren beraren erabilera arduratsua egin dugu; hala, jaiaren ostean plaza garbitu eta atondu dugu.

reivindicación ha seguido formando parte de su naturaleza; ante todo, la Indabada ha sido el día en el que cientos de jóvenes se han reunido en un ambiente festivo inmejorable y han reforzado lazos. Así el principal objetivo ha sido pasar un buen rato sin dejar de enredar, y claro está, sin dejar de reivindicar el uso del espacio de la calle. Como en años anteriores, la Indabada se ha organizado a través de asambleas abiertas; todo el mundo ha tenido la oportunidad de acercarse y realizar sus aportaciones, ya que siempre hemos mantenido las puertas abiertas para escuchar todas las propuestas. Además, debemos subrayar que durante todos estos años hemos recibido el apoyo y la ayuda de muchos bares que han colaborado para preparar este día. Como cada año, también este año, además de reivindicar que se simplifique el uso de la plaza, hemos promovido su uso responsable, ya que después de la fiesta procedimos a limpiarla y ponerla en orden.

Horrela jardun dugu azken urteetan; baita 2016ko urriaren 29an ere. Zoritxarrez baina, aurten ere udaltzaingoak plazara hurbildu dira antolatzaileak identifikatzeko asmoz. Udal – gobernuaren esku hartzea, ordea, ez da horretan bakarrik geratu; identifikazioak lortu ezinik, Indabadan parte hartu zuten lagunak jarraitu dituzte, dei telefononikoekin jazartu, eta hori gutxi balitz egun horretarako kontratatuak ziren enpresei deitu eta antolatzaileen izen-abizenak eskatu dizkiete. Tamalez, horrelakoek ez gaituzte bete-betean ezustean harrapatzen; iaz ere zigor ekonomikoak jaso baikenituen.

Así hemos actuado los últimos años, también el 29 de octubre de 2016. Pero desafortunadamente, este año también, la Policía Local se acercó a la plaza con el objetivo de identificar a los organizadores. Pero la intervención del ayuntamiento no quedó ahí: puesto que no pudieron identificar a nadie, han estado siguiendo a quienes participaron en la Indabada, los han acosado mediante llamadas telefónicas, y si eso fuera poco, han llamado a las empresas contratadas para ese día y les han pedido que les faciliten los nombres y apellidos de los organizadores. Desgraciadamente, ese tipo de actuaciones no nos pillan desprevenidos, ya que el año pasado también nos impusieron sanciones

económicas.

Auzia baina ez da horretan geratu, azaroaren 11n, egoera errepresiboa salatzen zuten pankartak Hezetasuna auzotik kendu zituen Udaltzaingoak. Zalantzarik gabe, Udal gobernuak aurrera eramandako jazarpen/errepresio estrategia oso baten aurrean gaude. Egoera hau gaia beste modu batean kudeatzeko ezintasunaren isla da, jazarpenaren mesedetan jarritako makinaria osoak hori iradokitzen digu, ez besterik.

Pero la cosa no ha quedado ahí, ya que el 11 de noviembre la Policía Local procedió a retirar las pancartas que denunciaban la situación represiva en el barrio Humedad. Sin duda alguna, estamos ante una estrategia de acoso y represión llevada a cabo por el gobierno municipal. Esta situación es el mero reflejo de la incapacidad de abordar este tema desde otra perspectiva. Eso y no otra cosa es lo que nos sugiere toda la maquinaria puesta a disposición de la persecución.

Horren guztiaren aurrean, Indabadan modu batean zein bestean, Indabadaren parte garen mugimendu zabaleko lagunok honako akordioa proposatzen diogu Getxoko Udalbatza Osoari:

Frente a todo ello, todos los que de alguna forma u otra formamos parte del amplio movimiento que es la Indabada, proponemos el siguiente acuerdo ante la Corporación Municipal de Getxo:

1. Azken asteotan aurrera eramandako jazarpena bertan behera utz dezala, eta aurrera begira, halakorik berriro gerta ez dadila.

1. Que se acabe con la persecución llevada a cabo durante estas semanas, y que no se vuelva a repetir en el futuro.

2. Etorkizunean Udalak trabarik jar ez dezala Indabada deituriko jai eguna Algortako plazan ospatzeko.

2. Que el Ayuntamiento no ponga más obstáculos para poder celebrar la Indabada en la plaza de Algorta.

Nerea Guijarrubiak adierazi du mozioa indaba jana antolatzen duen kolektiboaren izenean aurkezten dutela.

Nerea Guijarrubia manifiesta que la moción la presentan en nombre del colectivo que organiza la alubiada.

Susana Andollok aipatu duenez, ez zaie harrigarria egiten kolektibo batek idatzi bat aurkeztea talde politiko baten bidez, kolektiboak osoko bilkuran zuzenean aurkezten ez baita uzten, eta egoera hori zuzendu egin behar dela uste du. Autokudeaketarako espazioa diren ekintza horiek izapideen bidez ez zirela mugatu beharko uste du bide publikoa erabiltzeko. Erregulazioa beharrezkoa dela iritzi du, eta honek ez

Susana Andollo indica que no les extraña que un colectivo presente un escrito a través de un grupo político ya que no está permitido presentar directamente del colectivo al Pleno, lo que cree que debe de corregirse. Cree que esos actos, que son un espacio de autogestión, no deberían coartarse por los trámites para el uso de la vía pública. Opina que la regulación es necesaria y la que está no parece que

dirudi egokiena denik; aldi berean adierazi du gobernuko taldeak ez duela jarrerak gerturatzen jakin.

sea la más adecuada, a la vez que manifiesta que el equipo de gobierno no ha sabido acercar posturas.

Keltse Eigurenek, gobernuko taldearen izenean, indaba jana egiteko arazorik ez dagoela ziurtatu du, baina urtero antolatzaileek bide publikoa inolako baimenik eskatu gabe okupatzen dutela; administrazio mailako arau hauste bat da hori eta, jakina, poliziak arau hauste hori ikusirik bere funtzioak betetzen ditu, hau da, kasu honetan, antolatzaileak identifikatzea, bi eguneko epean bete den zeregina. Getxoko talde eta kolektibo guztiek, baita udalak berak ere, bide publikoa okupatzeko araudia betetzen dute. Kolektibo hori berezia izatea nahi den galdetu du eta ea araudia bete beharrik ez duten, gainerako guztiek bete behar duten moduan. Irtenbidea honako hau dela uste du: gainerakoek bezala, baimena eskatu eta araudia bete dezala, azpimarratuz ezin dela ukatu eskatu ez den zerbait. Jakinarazi du, halaber, poliziaren jokabideari buruzko kexarik ez dela izan, eta nabarmendu du udalak ez duela arazorik ekitaldia egiteko, baldin eta araudi aplikagarria betetzen bada; antolatzaileekin biltzeko prest daude, bai eta izapideak egiteko orduan aholkularitza emateko eta laguntzeko ere.

Keltse Eiguren, en nombre del equipo de gobierno, asegura que no existe ningún tipo de problema para la celebración de la alubiada pero que todos los años el grupo organizador ha ocupado la vía pública sin pedir ninguna autorización, lo que supone una infracción administrativa y, lógicamente, la policía realiza sus funciones ante esta infracción, que en este caso ha sido la identificación de los organizadores, tarea que se ha realizado en un plazo de dos días. Todos los grupos y colectivos de Getxo, y hasta el propio ayuntamiento, cumplen la normativa para la ocupación de vía pública. Pregunta si lo que se pretende es que este colectivo sea especial y no tenga que cumplir la normativa como el resto. Cree que la solución es que como los demás pida la autorización y cumpla la normativa, recalcando que no se puede negar aquello que no ha sido objeto de solicitud. Informa también que no se ha producido ninguna queja sobre la actuación policial e insiste en que el ayuntamiento no tiene ningún problema para que se realice el acto si se ajusta a la normativa de aplicación y que están dispuestos a reunirse con los organizadores a efectos de asesorarles y aydarles en la formalización de los trámites.

Nerea Guijarrubiak aipatu duenez, EH Bilduk ukitutako kolektiboak igorritako mozioa aurkezteko eginkizuna bete du, eta auzokideek mozioak zuzenean aurkezteko aukera izan dezatela eskatu du. EH Bilduk kolektiboaren bertsioa ontzat jo du eta poliziaren jokabidea kritikatu, ez dela proportzionatua izan

Nerea Guijarrubia indica que EH Bildu realiza la labor de presentar la moción remitida por el colectivo afectado y pide que los vecinos puedan presentar mociones directamente. EH Bildu da por buena la versión del colectivo y critica la actuación policial que estima no ha sido proporcionada por ello

uste baitu; horregatik, erabakien arduradunak identifikatu nahi dituzte, erantzukizun politikoak daudela ziur baitaude. Poliziaren eta administrazioaren jarduera horiek jarrerak gerturatzen ez dutela laguntzen iritzi du. Elkarrizketa dela tresna eraginkorrena uste dute, ez jazarpena eta errepresioa; izan ere, azken horiek ez dituzte arazoak konpontzen, esparru askotan frogatu daitekeenez. Era honetako jarduerek Getxoko herri guztiari egiten dioten ekarpenaren balioa nabarmendu nahi dute, EH Bilduk babesten duena.

quieren identificar a los responsables de las decisiones porque están convencidos que hay responsabilidades políticas. Opina que estas actuaciones policiales y administrativas no ayudan a acercar posiciones. Creen que lo efectivo es el diálogo y no la persecución ni la represión que como se demuestra en muchos ámbitos no soluciona los problemas. Quieren poner en valor la aportación que para todo el pueblo de Getxo tienen este tipo de actividades que EH Bildu apoya.

Keltse Eigurenek azpimarratu du EH Bilduk polizia jazarpena jotzen duena ez dela hala; kontua da talde antolatzaileek ez zuela baimenik eskatu eta eskatu gabekoa ezin dela baimendu. Osoko bilkurara heltzeko administrazioko izapidea bete dutela adierazi du, eta ez du ulertzen zergatik ez duten egiten indaba jana egiteko. Amaitzeko, urte askoan akordio batera heltzeko ahaleginak egin direla esan du, eta akordiorako nahiz lankidetzarako espiritu horrek indarrean jarraitzen duela gobernuko taldean.

Keltse Eiguen reitera que lo que denomina EH Bildu persecución policial no es tal, lo que ocurrió es que el colectivo organizador no pidió permiso y lo que no se ha solicitado no se puede autorizar. Manifiesta que para acceder al ayuntamiento al Pleno han cumplimentado la tramitación administrativa y no entiende porque no lo hacen para realizar el acto de la alubiada. Finaliza indicando que ha habido esfuerzos por llegar a un acuerdo durante años y ese espíritu de acuerdo y colaboración sigue vigente en el equipo de gobierno.

Nerea Guijarrubiak erantzun du bi bertsio daudela: bata udalarena, eta bestea, kaltetuena, poliziaren jazarpen nahiz identifikazioei buruzkoa, eta EH Bilduk kaltetuena onartzen duela. Poliziaren jokabidea desproportzionatua izan dela uste du. Arazoa konpontzeko borondatea beharrezkoa dela iritzi du eta, horretarako, gobernuko taldeak pausoak eman behar dituela.

Nerea Guijarrubia replica que hay dos versiones una la del ayuntamiento y otra la de los afectados acerca de la persecución y de las identificaciones policiales y EH Bildu asume la de los afectados. Cree que la actuación policial ha sido desproporcionada. Cree necesaria la voluntad para reconducir el problema y para ello el equipo de gobierno debe de dar pasos.

Keltse Eigurenek erantzun dio ez duela zalantzarik indaba janaren aldeko jendea dagoela, baina kolektibo horrek

Keltse Eiguren le contesta que no duda que haya gente a favor de la alubiada pero tampoco duda que ese colectivo

Getxoko gainerako kolektiboek bezala, araudia bete beharra duela ere argi du. Antolatzaileekin hitz egiteko prest daudela errepikatu du bide publikoko sailekin batera lan egin dezaten.

tiene que cumplir la normativa como el resto de los colectivos de Getxo. Insiste en la mano tendida a los organizadores para trabajar conjuntamente con los departamentos de vía pública.

Mozioa bozkatu ostean, baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu), kontrako 16rekin (EAJ-PNV, PP, PSE-EE) eta 4 abstentziorekin (GUK).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu; 16 en contra, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstenciones, GUK.

Enrique Prada bilkura aretotik atera da.

Enrique Prada se ausenta del salón de sesiones.

**231.- CIUDADANOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXON ITSUENTZAKO HIRIGINTZAKO NEURRI BARNERATZAILEAK BULKATZEA.**

**231.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/EL FOMENTO DE MEDIDAS URBANÍSTICAS INCLUSIVAS PARA INVIDENTES EN GETXO.**

Santiago Sainzek mozioa irakurri du. Itsuek ez bezala, jarduera asko modu mekanikoan egiten dituztela esan du eta itsuak balira haiek egitea oso zaila izango zela; hala, haien tokian jartzeko eskatu du eta neurriak hartzeko pertsona horiek udalerrian zehar eroso mugitu ahal daitezen.

Santiago Sainz da lectura a la moción. Indica, que a diferencia de los invidentes, realizamos muchas actuaciones de manera mecánica que si fueramos invidentes nos resultarían muy dificultosas y pide el esfuerzo de ponerse en su lugar y adoptar medidas para facilitar el desplazamiento de esas personas de manera cómoda por el municipio.

Joseba Arregik mozioaren tonua eta emandako datuak eskertu ditu, eta eskatutakoarekin bat etorriz aurrera egiten jarraituko dela, nahiz eta ez duten babestuko, ez baitakite azterketaren proposamen zehatza den egin behar dena; hala ere, gaia udaleko teknikarieki helaraziko diela esan du.

Joseba Arregi agradece el tono de la moción y los datos que aporta y en consonancia con lo solicitado se irá avanzando, si bien no la apoyarán porque no saben si la propuesta concreta del estudio es lo que hay que hacer pero que trasladarán el tema a los técnicos municipales.

Paula Amievak gogorarazi du GUK taldeak irisgarritasun arloan era guztietako aurrerapenak proposatu eta babestu dituela, eta mozioa hirigintzako neurrietara soilik mugatzea murriztailea iruditzen zaio.

Paula Amieva recuerda que GUK ha venido planteando y apoyando todo tipo de avances en accesibilidad y le parece que limitar la moción únicamente a medidas urbanísticas es reduccionista.

Raquel Gonzalezek dioenez, duela hiru urte baino gehiago itsuak aisialdiko espazioetara sartzeko neurriak eskatu zituzten, eta erantzuna EAJ-PNVren abstentzioa izan zen lehentasunen zerrendak ordenatu behar zirela arrazoituz, eta oraindik ez dute ezer egin. Orain iragartzen duten abstentzioak emaitza bera ez dezala izan espero du.

Raquel González manifiesta que hace más de tres años que pidieron medidas de acceso de invidentes a espacios de ocio y la respuesta fue una abstención del PNV en base a debían de ordenarse las listas de prioridades y aún no han realizado nada. Espera que la abstención que anuncian ahora no apareje el mismo resultado.

Joseba Arregik aipatu du udala irisgarritasunaren gainean sentsibilizatuta dagoela duela 25 urte baino gehiagotik, eta hori jende askok egindako lanari esker izan dela; hala, aurrerapen handiak erdietsi dira. Tonuak eta formek harremanak asko errazten dituztela berretsi du.

Joseba Arregi indica que el ayuntamiento tiene una sensibilidad sobre la accesibilidad desde hace más de 25 años y ello se debe a la labor de mucha gente, habiéndose logrado grandes avances. Se ratifica en que el tono y las formas facilitan mucho las relaciones.

Santiago Sainzek gobernuko taldeari eskerrak eman dizkio, proposamena babestu ez arren, aztertu egingo duelako, eta gainerako taldeak ere eskertu egin ditu emandako babesagatik.

Santiago Sainz agradece al equipo de gobierno que, aunque no apoye, vaya a estudiar la propuesta y agradece también el apoyo manifestado por el resto de los grupos.

Paula Amievak uste du harremanak errazten dituzten tonua eta formak direla gobernuko taldeari gustatzen zaizkionak. Lehentasun irizpideei buruz galdetu du, Hirigintzako zinegotziak esan baitu irizpide bat jende gehienari onura egiten diona izan dadila, eta irizpide horrek kezka sorrarazi dio gutxiengoen kolektiboetan eragin dezakeen bazterketa egoeragatik.

Paula Amieva cree que el tono y las formas que facilitan las relaciones son aquellos que gustan al equipo de gobierno. Pregunta por los criterios de priorización ya que se ha referido el concejal de Urbanismo a que un criterio sea lo que beneficie a más gente y ese criterio lo preocupa por la exclusión que puede plantearse respecto a colectivos minoritarios.

Joseba Arregik esan dio berak aipatu duena honako hau dela: beharrak dituzten kolektiboen artean lehentasunak jarri behar direla, eta formak eta edukia bi gauza ezberdin direla.

Joseba Arregi le indica que lo que él ha planteado es que hay que priorizar entre colectivos con necesidades y le indica que las formas no son el contenido.

Oier Iturraldek iragarri du EH Bilduk aldeko botoa emango duela, eta mozioak dioen moduan, neurriak hartu badira ere, oraindik asko falta dela, eta bertan adierazten den azterketa teknikoa egitea beharrezkoa dela iruditzen zaio.

Oier Iturralde anuncia que EH Bildu votará a favor y cree que tal como dice la moción, aunque se han tomado medidas falta mucho aún y cree necesario realizar el estudio técnico que se plantea en la misma.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 12 boto (PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos) eta 11 abstentzio (EAJ-PNV eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 12 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Joan den urriaren 15ean Makil Zuriaren Nazioarteko Eguna izan zen. Egun horrek gogora ekartzen dizkigu itsuek izaten dituzten zailtasunak gainerakoentzat egunerokoak diren jarduerak egitean, hala nola kaletik paseatzea edo eskailerak jaistea.

El pasado 15 de octubre se celebró el Día Mundial del bastón blanco, un día que nos sirve de recordatorio de las difíciles situaciones a las que se ven expuestos los invidentes para desempeñar actividades que para el resto son tan cotidianas como pasear por la calle o bajar unas escaleras.

Getxok urrats nahiko egin ditu gai horri dagokionez, ez dago zalantzarik. Hala ere, ziur gaude oraindik ibilbide luzea dugula aurretik, getxotarrek baldintza berdinetan ibili ahal izango duten Getxoko udalerria erdiesteko.

Getxo ha avanzado mucho en esta materia, eso es indudable; sin embargo, estamos convencidos de que nos queda mucho camino por recorrer hasta llegar a un Getxo en el que todos los getxotarras puedan transitar por el en igualdad de condiciones.

Getxon zehar, luzean eta zabalean, eskailerak dituzten edo altueran dauden toki anitz aurkitu ditzakegu. Ikusteko desgaitasunik ez duten eta autonomiaz leku batetik bestera joan daitezkeenentzat horiek ez ohi dira traba izaten. Ikusteko desgaitasuna dutenentzat, aldiz, eskailerak erronka izan daitezke, eta ez badakite han daudela, arrisku handia ere.

A lo largo y ancho de Getxo son diversos los emplazamientos con escaleras, o elevaciones. Para una persona sin discapacidades visuales, que pueda desplazarse autónomamente, no suponen en principio obstáculo alguno. Ahora bien, si una persona es discapacitada visual, unas escaleras pueden suponerle un reto, o incluso un gran peligro, en caso de no tener constancia de las mismas.

Zorionez, muga horiek oso modu erraz eta eraginkorrean konpondu daitezke;

Afortunadamente, estas limitaciones pueden ser mitigadas de una manera

hala ere, Getxoko toki askotan, tamalez, ez da gauzatu.

Hain zuzen, deserosotasun horiek itsuentzako bidezidorrak jarrita arintzen dira. Gainera, horiexek zebrabideak non dauden adierazi ez ezik, beste erabilera batzuk ere badituzte. Adibidez, eskailera-tarte baten hasiera eta amaiera seinaleztatzeko balio dute.
Getxoko hainbat txokotan, tamalez, egun oraindik bidezidorrik gabeko eskailerak daude, honako hauek esate baterako:

- Maria Kristina plaza, Basagoiti etorbidetik sartzeko eskailerak ez daude seinaleztatuta.

- Alango, Juan Bautista Uribarri eta Euskal Herria kaleak: Bertako eskailera-tarteak ere ez daude itsuentzat seinaleztatuta.

- Getxoko udaletxea: udaletxerako sarbidearen aurrean bi eskailera-tarte daude, baldosa horiek barik. Gure ustez, udalaren erantzukizuna da getxotar guztiek udaletxera sartzeko sarbide egokitua dutela bermatzea, eta horregatik, funtsezkoa deritzogu hura jartzeari. Gainera, gure ustez, beharrezkoa da udaletxeko igogailuaren barruan soinu-gailu bat jartzea, brailleko zenbakiak dituzten teklekin.

Aurrekoak adibide batzuk baino ez dira, udalerriko geografian zehar, esparru ugari ez baitaude modu egokian seinaleztatuta itsuentzat.
Horregatik guztiagatik, begiruneak bizikidetzaren oinarria izan behar

muy sencilla, efectiva, y de la que, desgraciadamente a día de hoy carecemos en varios de los puntos principales de Getxo.
La forma de aliviar estas incomodidades consiste en la implantación de veredas para invidentes, las cuales tienen más usos que el ya conocido de señalar la localización de los pasos de cebra. Sirven también para señalar el inicio y el final de un tramo de escaleras.
Son varios los lugares de Getxo que cuentan con escaleras y que, desgraciadamente a día de hoy, no cuentan con estas veredas, nos estamos refiriendo por citar algunos ejemplos a:

- Plaza Reina Cristina, las escaleras de acceso desde la Av. Basagoiti carecen de señalización.

- C/ Alango, C/ Juan Bautista Uribarri y Euskal Herria Kalea: estos tramos de escaleras tampoco cuentan con señalización para invidentes.

- Ayuntamiento de Getxo: el acceso al Ayuntamiento está precedido por dos tramos de escaleras que no cuentan con estas baldosas, creemos que es responsabilidad del Ayuntamiento garantizar que todos y todas los getxotarras tengan un acceso adaptado al Consistorio, por ello consideramos fundamental su implantación. Además, consideramos necesario la instalación de un dispositivo sonoro y de teclas numéricas en "braille" en el interior del ascensor consistorial.

Estos son solo algunos ejemplos, pero a lo largo de la geografía municipal existen multitud de espacios que no se encuentran debidamente señalizados para personas invidentes.
Por todo ello, porque el respeto debe

duelako, eta Udala hurbileneko administrazioa delako eta herritarrekiko harreman zuzena duelako uste osoa dugulako, honako erabaki proposamen hau aurkeztu nahi dugu:

ser la base para la convivencia y porque tenemos la convicción de que el Ayuntamiento, como administración más cercana y en contacto más directo con la ciudadanía, solicitamos la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Getxoko bazter guztien azterketa teknikoa egitea, itsuentzat egokituta ez dauden tokiak identifikatze aldera.

PRIMERA.- Realizar un estudio técnico a lo largo y ancho de Getxo con el fin de identificar los lugares que no se encuentran adaptados para personas invidentes.

BIGARRENA.- Azterketa teknikoa egin ostean, udalerriko leku horiek egokituko dira.

SEGUNDA.- Una vez realizado el estudio técnico, se procederá a la adecuación de los diferentes lugares del municipio.

HIRUGARRENA.- Eskumena duen agintaritzari eskatzea Bizkaibuseko eta metroko geltokiak egokitu ditzala ikusteko desgaitasuna dutenentzat, seinaleen edo soinu-iragarpenen bidez jakinarazteko heldu berri den edo heltzear dagoen autobusaren edo metroaren helmuga. Horrela, itsuek egoki identifikatu ahal izango dituzte.

TERCERA.- Instar a las autoridades competentes a la adecuación de las paradas de Bizkaibus y estaciones del Metro para personas con discapacidad visual mediante señales o anuncios sonoros que comuniquen el destino del Autobús o Metro que acaba de llegar o esta a punto de hacerlo para su correcta identificación.

**232.- CIUDADANOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXON DIABETESAREN KONTROLARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO JARDUNALDIAK.**

**232.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/CREACIÓN DE JORNADAS DE CONTROL Y PREVENCIÓN DE LA DIABETES EN GETXO.**

Santiago Sainz jaunak ondorengo mozioa irakurri du:

Santiago Sainz de lectura a la siguiente moción:

Diabetesa, egun, ezin daiteke sendatu. Gaixotasun horrek badu tratamendua ordea, eta horri buruzkoa da mozio honen edukia. Nahita egin dugu azaroaren 14an, Diabetesaren Nazioarteko Egunean. Egun hori

La diabetes es una enfermedad que a día de hoy no tiene cura, pero si tratamiento; y de su tratamiento versa el contenido de la presente moción. La hemos hecho coincidir con el pasado 14 de noviembre, Día Mundial de la

mundu-mailan gaixotasunaz jabetzeko tresna gisa sortu zen, jendearen arreta gaixotasun larri horren zergati, sintoma, konplikazio eta tratamenduetara bideratzeko.

Diabetes, creado como medio para aumentar la concienciación global esta enfermedad, para dirigir la atención del público hacia las causas, síntomas, complicaciones y tratamiento de esta grave enfermedad.

Ziur asko, denok ezagutzen dugu, hein handiago ala txikiagoan, diabetesa duen norbait. Gaixotasun isil hori, egun, Espainiako ia bost milioi biztanlek pairatzen dute, biztanleriaren % 11, eta eritasunaren prebalentzia goran egiten ari da.

Sin duda en mayor o en menor grado todos y todas conocemos personas que padecen de diabetes, esa enfermedad silenciosa que a día de hoy afecta en España a casi cinco millones de personas, un 11% de la población, y cuya prevalencia va en aumento.

OMEk heriotza-arrazoien aurreikuspena egin du azterketa batean, eta horren arabera, diabetesa, hamalau urte eskas barru, osasunerako mehatxu nagusia izango da. Eztabaida alde batera utziz, prebentzio guztia gutxi dela uste dugu eta ahalik eta lehenen hasi behar dela egiten.

Se trata de una enfermedad que, según un estudio realizado por la OMS, dibuja unas preocupantes proyecciones sobre causas de mortalidad que revelan que dentro de apenas catorce años, la diabetes se perfila como la principal amenaza para la salud pública. Creemos fuera de debate que toda prevención es poca, y que esa prevención debe empezar cuanto antes.

Udalaren eginkizun nagusia herritarren ongizateaz arduratzea da. Hori dela eta, getxotar guztiei zuzendutako kanpainak sortzea proposatu nahi dugu, 2. motako diabetesa prebenitzeko, goiz hautemateko eta kontrolatzeko. Izan ere, diabeteseko kasuen % 90 2. motakoak dira.

La principal función de un Ayuntamiento es velar por el bienestar de sus vecinos y vecinas, por ello lo que se propone es la creación de campañas dirigidas a todos los Getxotarras para la prevención, detección precoz, y control de la diabetes tipo 2, que supone el 90% de los casos de diabetes.

Kanpainen edukiek, gure iritziz, karpak edota informazio-tailerrak izan behar dituzte, diabetesari eta horren tratamendu eta kontrolari buruzkoak. Eritasun kroniko horrek sor dezakeen ardura eta interesa direla eta, beharrezkoa deritzogu osasun arloko profesionalen esku-hartzeari, hitzaldiak egin ditzaten horietan getxotarrek gaixotasunari buruzko galderak egin eta zalantzak argitu ahal izateko.

El contenido de estas campañas creemos que ha de englobar carpas y/o talleres informativos de la diabetes, así como su tratamiento y control. Debido a la preocupación o al interés que puede suscitar esta afección crónica, estimamos necesaria la intervención de profesionales de la salud dando conferencias en las que los y las getxotarras puedan hacer preguntas y aclarar sus dudas sobre esta enfermedad.

Halaber, beharrezkoa deritzogu kanpaina horretan Findrisc-en testa doan egiteari. Horrela, getxotarrek 2. motako diabetesa izateko duten arriskua ezagutu ahal izango dute 8 galdera xumeei erantzunda. 2. motako diabeteseko kasuen % 70 prebenitu daitezke, eta ekimen honek helburu du, hain zuzen, arriskua duten biztanleak identifikatzea lehen adierazitako testaren bidez.

Además consideramos necesario que durante esta campaña se realice de manera totalmente gratuita el conocido como Test de Findrisc para que el o la getxotarra conozca el riesgo que tiene de padecer diabetes tipo 2 respondiendo a 8 sencillas preguntas. El 70% de la diabetes tipo 2 se puede prevenir, por eso el objetivo de esta iniciativa es identificar a la población de riesgo mediante el citado test.

Gure ustez, funtsezkoa da umeentzako eskola-menuak ahalik eta orekatuen izatea, gazteak osasuntsu eta sendo hazi daitezen laguntze-aldera. Horrela, diabetesa eta beste gaixotasun batzuk ekidingo dira.

Estimamos fundamental que los menús escolares para los niños y niñas sean lo mas equilibrados posibles para favorecer un desarrollo sano y fuerte de nuestros jóvenes, evitando así enfermedades como la diabetes.

Bestalde, ukaezinak dira ariketa fisikoak eritasuna prebenitzeko dakartzan onurak. Horregatik, interesgarria izan daitekeela iruditzen zaigu, 2017. urtetik aurrera, Getxon "Paseo osasungarria" egitea azaroaren 14ko astean (Diabetesaren Nazioarteko Eguna) gaixotasuna prebenitzearen alde.

Están además fuera de debate las bondades que el ejercicio físico acarrea para la prevención de esta enfermedad, es por ello que estimamos interesante la celebración de un "Paseo Saludable" por Getxo la semana del 14 de noviembre (Día Mundial de la Diabetes), desde el año que viene 2017, por la prevención de esta enfermedad.

Hori guztia dela eta, udal-talde honek ondorengo erabaki proposamena aurkezten du:

Es por ello que este Grupo Municipal solicita la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Diabetesari buruzko karpak edota informazio-tailerrak dituzten kanpainak sortzea.

PRIMERA.- La creación de campañas con carpas y/o talleres informativos sobre la diabetes.

BIGARRENA.- Getxoko Udalak udalerriko ikastetxeei eskatzea ekimenak egin ditzaten gurasoak eta ikasleak jabetzeko 2. motako diabetesaren arriskuez.

SEGUNDA.- Que el Ayuntamiento de Getxo inste a los diversos centros escolares del municipio a realizar actos de concienciación a padres y alumnos sobre los riesgos que la diabetes tipo 2 conlleva.

HIRUGARRENA.- 2017. urtetik aurrera, Paseo osasungarria egitea azaroaren 14ko astean, egun hori baita Diabetesaren Nazioarteko Eguna.

TERCERA.- La celebración de un Paseo Saludable a partir de 2017 la semana del 14 de noviembre, Día Mundial de la Diabetes.

Santiago Sainzek aipatu duenez, Getxon tailer eta karpa asko egiten dira, eta diabetesa maila horietan sar daitekeela uste du, gaixotasun horren prebentziorako kontzientzia sortzea oinarrizkoa baita.

Santiago Sainz indica que en Getxo se realizan muchos talleres y carpas y cree que la diabetes puede englobarse en esas categorías ya que es fundamental crear una conciencia de prevención de esa enfermedad.

Susana Andolloren iritziz, kanpaina horiek Eusko Jaurlaritzako Osasun arloak egiten ditu eta ez diabetesari buruzkoak bakarrik, baita beste gaixotasun batzuei buruzkoak ere. Abstenitu egingo dira, nahiz eta laguntzeko borondatea agertu duen ekintzaren bat prestatzen bada.

Susana Andollo opina que esas campañas se realizan desde el área de Salud del Gobierno Vasco y no únicamente sobre la diabetes sino sobre otras enfermedades. Se van a abstener aunque manifiestan su voluntad de colarobar si se realiza alguna acción.

Oier Iturraldek adierazi duenez, diabetesaren eta beste gaitz batzuen gaineko prebentzio kanpainak egitearen alde daude, baina Osakidetzari dagokio haiek antolatzea; beraz, abstenitu egingo dira.

Oier Iturralde manifiesta que apoyan la realización de campañas de prevención sobre diabetes y otras enfermedades pero que corresponde a Osakidetza su organización, por lo que se abstendrán.

Mozioa bozkatu ostean, baztertu egin da aldeko 1 botorekin (Ciudadanos), kontrako 15rekin (EAJ-PNV, PP, PSE-EE) eta 7 abstentziorekin (GUK, EH Bildu).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 15 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE; 7 abstenciones; GUK, EH Bildu.

Koldo Iturbek EAJ-PNVren kontrako botoaren arrazoia eman du, Osakidetzaren eskumena dela esan baitu.

Koldo Iturbe explica el voto negativo del PNV porque se trata de una competencia de Osakidetza.

Susana de Cosek, PPren izenean, bere botoa arrazoitu du, eta aitortu du diabetesa oso zabalduta dagoela eta prebentzioa beharrezkoa dela; hala ere, uste du udala ez dela gai hori aztertzeko foroa, Osakidetzari dagokiola, eta eztabaidaren bat izatekotan, Eusko Legebiltzarrean egin

Susana de Cos, en nombre del PP, explica su voto reconociendo la incidencia de la diabetes y la necesidad de la prevención pero estima que el ayuntamiento no es el foro para este tema, que corresponde a Osakidetza y de producirse algún debate debe producirse en el Parlamento Vasco.

behar dela.

**GALDE-ESKEAK**

Paula Amievak galdetu du udalak ekitaldiren bat egiteko asmorik duen "Carolo"-ren heriotza dela eta.

Alkateak erantzun du laguntzeko eta ekitaldiren bat antolatzen bada, bertan parte hartzeko prest dagoela (badirudi antolatuko dela); "Carolo" pertsona berezia eta oso maitatua zela aitortu du.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko bederatziak eta berrogeita hamar direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Paula Amieva pregunta si el ayuntamiento tiene intención de hacer algún acto con motivo del fallecimiento de "Carolo".

El Alcalde contesta que está dispuesto a colaborar y a acudir si se realiza algún acto, como parece previsible, reconociendo que "Carolo" era una persona singular y muy apreciada.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las veintiun horas y cincuenta minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.